

## Luis Astigarraga Ugarte, politikari eta pedagogo euskaltzalea (Segura, 1767 – Gasteiz, 1840)

(Luis Astigarraga Ugarte, Basque language loyalist politician and educationalist (Segura, 1767 – Gasteiz, 1840))

Intxausti Rekondo, Joseba  
Euskaltzaindia. Hernani, 15. 48004 Donostia

BIBLID [1137-4446 (2008), 16; 11-45]

Jaso: 07.07.25  
Ogartu: 07.12.03

---

*Luis Astigarraga Ugarte-ren (1767-1840) biografia pertsonala eta ibilera politiko eta ideologikoa aurkezten ditu Txostenak, betiere beraren bide-erakuntzen proiektuak (Otsaurte) eta egitarau pedagogikoak azalduz (Pestalozzi, Lancaster), eta euskara eskolaratzeko hark egindako ahaleginak erakutsiz. Gainera, Diccionario Manual Bascongado-ren ez-ohizko historiari arretaz begiratzen zaio (1825-1933). Azkoitiko Zalduntxoen tradizio "argiztatu" hasitako Astigarragak (...1797) ondoko Liberalismoaren arastoa ulertu zuen bere zeregin ideologiko eta politikoa (1808-1833).*

*Giltza-Hitzak: Eskola. Pedagogía. Euskara. Alfabetatzea. Gipuzkoa. Segura. Bideak. Liberalismoa.*

*La Ponencia presenta la trayectoria personal, política e ideológica de Luis Astigarraga Ugarte (1767-1840), con especial énfasis sobre sus proyectos viarios (Otsaurte) y pedagógicos (apoyados éstos en orientaciones de Pestalozzi y Lancaster) y sobre sus propósitos en pro de la presencia escolar del euskera. Se subraya también la historia de las numerosas ediciones de su Diccionario Manual Bascongado (1825-1933). Habiendo partido desde la Ilustración Bascongada (...1797), Astigarraga Ugarte reflexionó y actuó también en el contexto ideológico del Liberalismo de primera hora (1808-1833).*

*Palabras Clave: Escuela. Pedagogía. Euskera. Alfabetización. Guipúzcoa. Segura. Caminos. Liberalismo.*

*Ce rapport présente la biographie personnelle et le parcours politique et idéologique de Luis Astigarraga Ugarte (1767-1840), montre ses projets de création de voies (Otsaurte) et explique ses programmes pédagogiques (Pestalozzi, Lancaster), ainsi que ses efforts pour introduire l'euskara dans les écoles. Il accorde, en outre, une attention particulière à l'histoire du Diccionario Manual Bascongado (1825-1933), dictionnaire basque. Astigarraga part de la tradition « éclairée » des Caballeritos de Azkoitia (...1797) pour arriver à puiser sa fonction idéologique et politique dans le libéralisme (1808-1833).*

*Mots Clé : École. Pédagogie. Euskara. Alphabétisation. Gipuzkoa. Segura. Voies. Libéralisme.*

Luis Astigarraga Ugarte<sup>1</sup> aipatzean, euskal Eskola eta Hezkuntzan bide-urraztailea izandako norbaiten aurrean gaude, etaaldi berean XIX. mendeko euskal alfabetatzailea izandako baten aitzinean. Hala ere, nahikoa ezezaguna izan dugu Astigarraga, beroni buruzko albisteak urriak izan baitira, oso tantaka emandakoak, gainera (batez ere Lasa-rengandik jasotakoak)<sup>2</sup>.

Zerbait osatuagoa ekarri nahiko nuke orain<sup>3</sup>, euskal Hezkuntzaren historialariek eskuera izan ez ezik osatuz eta borobilduz joan daitezten. Lehendik genekiena jasokodut, noski, eta zenbait albiste osagarri eta zehatzago bilduko orrialde haueetan.

Oraingoz Astigarraga pedagogoari eskaini zaion lanik dokumentatuenean, zera idatzi da: Garaiko zinezko argiztatu baten aurrean gaudela esatea ez da inolako gehiegikeria. Bere barru kezkatiake heziketa entziklopedikoa eskuratzeraman zuen, betiere metodo pedagogiko aurreratuenekiko sentiberatasun handiz gainera, dio Benito-k<sup>4</sup>.

Hori horrela, esan beharra dago, bestalde, XVIII. mendeko Argien luzapenean Astigarraga Ugarte hau ez zela nabarmendu bakarrik Eskolaz arduratu zelako, baizik eta Zalduntxoeren beste alderik ere baduela gizonak: aurrerapen teknikoa maite zuen, Europako ideia eta korronte intelektualak ezagutu zituen, Euskal Herriko kazetaritza berriaren hastapenetan ibili zen, etab.

Ikusiko dugun bezala, nazioartekotasun praktikoa bizi izan zuen Astigarragak, gogoz alde batetik eta bortxaturik bestetik. Errefuxiatuen atzerria ezagutu zuen, eta atzerriko hizkuntzak ikasi ere bai; Koroaren zerbitzuan ibili zen, European bezala Ameriketara, baina erroak Euskal Herrian mantendu zituen, eta bizitzako aldar-te on eta txarreke utzi zioten neurrian, bere lan maiteenak Euskal Herrian, Gipuzkoan, euskal Hiriburuetan eta Segura bere sorterrian sustatu eta abiarazi nahi izan zituen.

Aurrera baino lehen, ordea, komeni da esatea XIX. mendeko ideia eta asmo bizienak (askatasuna, hezkuntza, ekimen ekonomikoak, etab.) oso bere barruan

---

1. Testu honen lehen idazketa Bilbao Bilbao, B.; Perez Urraza, K.; Pérez Urraza, K. (arg.) (2007): *Paulo Iztueta, euskal pentsamenduaren eraikitzaile* liburua eman zen argitara (Bilbo: ehu). 161-196. Orain, Kongresuko lanen artean ematean, izenburua aldatu eta zuzenduta dator (Astigarragaren bigarren abizena *Ugarte* baitzen, eta ez *Uriarte*), bestalde zertzelada berriekin eman dut, eta testua, birmoldatuta.

2. Batez ere J. I. Lasa izan zen, uste dut, erbia eraiki zuena (ik. Lasa, J. I. et al. (1968): *Sobre la Enseñanza Primaria en el País Vasco*. Donostia: Auñamendi. 48-51). Geroztik han-hemen xehetasun errepikatua eman dira, eta J. de Benito-ri zor diogu urrats berri bat. Neuk osatu dut zerbait Segurari eskainitako nire lanetan (Intxausti 2006a: 282-291).

3. Ikus Intxausti, J. (ed.) (2003a): *Segura historian zehar*. Segura: Segurako Udala (=shz). 251 (J. A. Garro), 303-308 (J. de Benito Pascual), 568-571 (J. Intxausti).

4. Benito Pascual, J. de (2003): "Irakaskuntza publikoaren sorrera Seguran". In: shz 2003: 303-308. Jatorrizko erdal testua hitzez hitz jasoz: "creo que no es exagerado afirmar que nos encontramos ante un verdadero ilustrado del momento. Su inquietud le llevó a adquirir una formación que podríamos calificar de enciclopédica con una gran sensibilidad por todo lo relacionado con los métodos pedagógicos más avanzados".

zituela, eta Frantziako Iraultzak bultzaturiko modernitatea bere egin zuela, horretan politikari ere zegokion lekua emanez, ideien zabalkundean eta Administrazio orokorrean bezala sorterriko Kontzejuan.

Eta testuinguru zabal horretan euskaltzale berritzaile bezala ageri zaigu Luis Astigarraga. Gauzak sobera bortxatu gabe esan dezakegu garaiko euskaltzaleen artean nortasun kultural eta sozial konplexuenetakoa erakutsi zuela herritar paisano eskolatu honek. Euskal idazlea izateke, hizkuntzaz ardura serioa erakutsi zuena da Astigarraga Ugarte.

## 1. FAMILIARTEA ETA BIZITZA

Luis Astigarraga Ugarte Gipuzkoako Goierrin jaio zen, Segurako hiribilduan; baina Astigarragarren leinua kanpotik etorritakoa zen; hori bai, berehala txertatu ziren herriko familia handikien artean (Arrue eta Oriatarrekin ezkonduz, adibidez)<sup>5</sup>.

### 1.1. Astigarragarrenak

Segurako Astigarratarrenk Ataundik etorri ziren herrira, xvii. mendean, Joan Mz. de Astigarraga Maria Arrue Oriarekin ezkontzean. Horrek aukera eman zien, gainera, Oriarekin maiztasun eskuratzeko. Arruearen historia, oster, askoz lehenagotik zetorren bertan (xv. mendearen erdi aldetik edo)<sup>6</sup>, eta gaur egun ere beraien jauregia zutik dago Seguran<sup>7</sup>.

Segurako bigarren belaunalditik aurrera, Udal Kontzejura ere iritsi ziren Astigarratarrenak, eta xviii-xix. mendeetan ez zen falta izan herriko familiarekin horretako Zinegotzi eta Alkaterik<sup>8</sup>.

Gure pertsonaiaren aitona, Joan Ignazio Astigarraga Elosegí, izan zen familiarik lehenengo Alkatea (1731-1733), eta Luis-en aita Jose Joakin Astigarraga Agirre ere Alkatezara iritsi zen, eta birritan izan zen herriko Alkate (1764, 1773). Osaba Jose Ignazio Astigarraga Agirre, berriz, alkatez bererako hautatua behin-

---

5. Leinu eta familia hauen berri jakin nahi duenak begira beza: Aginagalde Olaizola, B. (2003): "Segurako handikiak: jauregiak eta leinuak". In: Intxausti (ed.) 2003: 205-246. Aginagalde berari zor dizkiot, gainera, Oriarekin Astigarragarren leinuen albisteak, eskuzabalki utzi dizkidanak.

6. Arruearen leinuaz: Aginagalde 2003 (shz): 216-218.

7. Begira Santana-ren lanean Arrue Jauregiari buruz dioena: Santana, A. (2006): "Guía de las casas y palacios de Segura". In: Intxausti, J. (ed.) (2006c): *Segura en su arte y monumentos*. Segura: Segurako Udala. 74, 134-135.

8. Familiako Alkatezaren ondoko hauek izan ziren: Joan Ignazio Astigarraga Elosegí, 1731-09-29an hautatua (1731-1733.etan Alkate izana); Jose Joakin Astigarraga Agirre (1764-01-01 eta 1773-01-01: 1764 eta 1773), Luis Astigarraga Ugarte (1797-01-01: 1797), Jose Ignazio Astigarraga Agirre (1805-01-01: ez zuen kargua hartu), Luis Astigarraga Ugarte (1805-01-12, 1806-01-01: 1805 eta 1806) eta Luis Astigarraga Izquierdo (1833-01-01: 1833). Ikus: Garro, J. A. (2003): "Segurako Alkate(s)ak". In: shz 2003: 591-603.

tzat izan zen nahiz eta kargua ez zuen hartu eta iloba Luis-i paso eman zion (1805). Berehala jakingo dugu nor zen osaba hau.

Beraz, ez da batere harritzekoa ondoko belaunean, Luis Astigarraga Ugarte, aipatutakoen semea eta iloba, Segurako Kontzeju-buru izatera heldu baldin bazen behin eta berriz. Astigarragarrenean ez ezik herriko handikien tradizioan ere ezaguna zen zenbait familiatako segidatasun politiko hori. Lehendik eta gero halatsu gertatu zen herrian Estensoro, Berasiartu, Arrue, Zurbano edo Lardizabaldarrekin, eta Aro Modernoko azken hamarkadetan Astigarragarrenak ere iritsi ziren *klub* horretara<sup>9</sup>.

Tokiko elitearen nagusitasun politiko hori nahikoa segurtatuta zegoen udal Ordenantzen bidez. Izan ere, hauteskundeetako hautapen-prozedura 1723ko Ordenantzek araututa zeukaten, eta kargudun ohiek erabakitzen zuten ondokoan hautagaitza (6. Ord.)<sup>10</sup>. Bestalde, familia jakin batzuen erbesteko arrakasta ekonomiko eta administratiboa ere sozialki erabakigarria gertatzen zen hautagai izendatua izateko.

Luis Astigarraga Ugarteren familiarte hurbiletik berorrek abonatu duen pertsonaia Jose I. Astigarraga Agirre osaba izango da batik bat. Hain zuzen, osaba horren bidez lortu zuten Astigarragarrek kanpoko arrakastaren berme hori. Iloba berak utzi zigun Jose Ignazio osabaren laudoriozko aurkezpen laburra<sup>11</sup>.

Desde el año 1800, se hallaba establecido en San Sebastian mi respetable Tio D. José de Astigarraga y Aguirre, Caballero de la Orden de Carlos III, Comandante Militar de Marina de aquella Provincia, Juez de Arriadas de Indias, é inspector de la fábrica de anclas de Guipuzcoa; cuyos honoríficos encargos tubo a bien conferirle S. M. el Señor Rey D. Carlos IV en atención á sus dilatados servicios, y á los distinguidos méritos contraídos en la Marina y en el empleo de Gobernador y Comandante General de las provincias de Santa Marta y Rio Hacha en el Reyno de Santa Fe de Bogotá. Habiendo tenido el honor de nacer en la villa de Idiazabal, y criadose en la de Segura, y en otras del pais Bascongado.

Osabak atekatu eta bermaturik, Madrileko Ministerioetako bulegoetara iritsi zen Luis. Goierriko politikan osaba-ilobek sustatuko dituzte Aizkorpeko<sup>12</sup> eta Goierriko bide-proiektu berriak (1803-1806), horretarako probintziarteko herri-mendien Partzuergoko herriak elkartzera deituz (*Parzonería*), Gipuzkoa eta Arabako Batzarretan proposamenak aurkeztu, ikaslan teknikoak egin eta Madrileraino joanez.

---

9. Intxausti, J. (2006a): *Seguraren historia*. Segura: Segurako Udala. 26-29; Id. (2006d): *Segura en su pasado y camino*. Segura: Segurako Udala. 118-121.

10. Intxausti, J. (2006d): "Segurako Ordenantza Orokorrak (1723)". In: *Tokiko Historia. IX. Jardunaldiak. Tokiko Foruetatik udal Ordenantzetara Euskal Herrian. Vitoria-Gasteiz 2006-11-29/30*. Argitaratzeko bidean.

11. *Memoria 1821*: 10.

12. *Aizkorpe* azken urteetan Herri-Erakundeek darabilten leku-izena da, Segura, Idiazabal, Mutiloa, Zerain eta Zegama biltzen dituen Goierriko bailara adierazteko.

## 1.2. Zertzelada biografikoak

Joan-etorri handiko eta aldarte gorabeheratsuko ibilera izan zuen Astigarraga Ugartek, bai bere ikasketa urteetan eta bizitza profesionalean, eta berdin herriko bere ardura politikoetan edo Euskal Herriko hiriburuetan sustatutako ekimene-tan. Nabaria da berarengan bide berriak urratu nahia: horretarako prestatzen ahalegindu zen gaztetan, eta heldutasunean ez zuen erraz amore eman aurrera atera nahi izan zituen bere asmoetan.

Esan bezala, Luis Astigarraga Ugarte Seguran jaio zen, 1767ko uztailaren 14an, eta egun berean bataiatu zuten Jasokundeko Parrokian<sup>13</sup>, eta Gasteizen hil zen, San Migel Goiaingeruaren Parrokiako paperetan ageri denez, 1840ko urriaren 10ean<sup>14</sup>. Hortaz, P. Iturriaga pedagogo sonatua baino 11 urte zaharra-goia dugu, eta honen lehenengo argitalpena (*Arte de aprender*, 1841) inprimatu baino urte bete lehenago hildakoa.

Jose Joakin Astigarraga Agirre eta Josefa Jazinta Ugarte Elordui senar-emaz-teen lehen semea zen haurra: geroago etorriko ziren M<sup>a</sup> Manuela alaba eta Jose Joakin beste semea (1773). Bost laguneko familia izan zen, beraz, Luis Astigarraga-ren sendia.

Uste daiteke lehen eskolatzea Seguran bertan egin zuela, eta maisu euskal-duna izan zuela bertan, zeren herriko Eskolarako irakasle-gaien euskalduntasuna aintzakotzat hartu izan baitzen lehiaketa-deialdietan (1754an, adibidez), baina Eskolako ikasle arteko harremanetan euskararen erabilpena zigortuta zegoen, Udalak berak ezarritako arau pedagogikoaren arabera<sup>15</sup>. Dena den, oraingoz ez dugu eskuera Luis mutikoaren lehen eskolatzearen albisterik.

Gipuzkoako Aldundiari eta Batzarrei zuzendutako txosten eta proposamen-idazkietatik ezagutzen dugu, modu orokorrean, Astigarragak bere ikasketak nondik nora eraman zituen. Benito-k laburtzen digunaren arabera, Latina, Filosofia eta Legeak ikasi zituen, eta Gortera joanik, San Fernando Erret Akademian eta San Isidro Erret Ikastegietan ibili zen Madril<sup>16</sup>.

---

13. Bataio-agiriak honela dio (deha 2840-002-001): "Dia martes a catorce de julio de mil setecientos y sesenta y siete, bautizó con mi licencia Don Juan Agustín de Goicoeches Pbro. Beneficiado de esta Parroquial a un hixo, que nació el mismo día, de don Joseph Joaquin de Astigarraga, y doña Josefa Jacinta de Ugarte su legítima muger, y nieto de don Juan Ignacio de Astigarraga, y doña María Bautista de Aguirre todos vecinos de esta villa, y de don Francisco de Ugarte y doña Josepha de Elordui vecinos de Gámiz en el Señorío de Vizcaia, a quien pusieron por nombre Luis, Xabier, Buanaventura, Joseph. Tubo padrino a don Joseph Francisco de Astigarraga Pbro, y Beneficiado de esta Parroquial, y por verdad firmo a una con el referido don Juan Agustín. Don Joseph Antonio de Echeverría. Don Juan Agustín de Goicoechea".

14. geha. 03167 001 00 (M00120002 02). Eskerrak Maixa Goikoetxeari heriotzako urte-egunak eskuratu dizkidalako.

15. Hala ere, Dotrina euskaraz ere eman behar zen. Ik. Intxausti, J. (2003b): "Segurako eta segurarren euskararen aldeko jarrera eta lanak". In: shz 2003: 547-548.

16. Benito shz 2003: 305.

Ibilera akademiko horrekin batera, saiatu zen, gainera, Matematika eta Zientzietan, eta hizkuntzen ikasketa bereziki maite izan zuen: “cultivé las lenguas como la Bascongada, Latina, Castellana, Francesa e Inglesa”, beraren hitzetan esateko. Bere ogibidea jarraiki, Penintsulan ez ezik Amerikan ere izan zuen zereginik<sup>17</sup>.

Luis Astigarraga Ugarte birritan ezkondu zen, oraindik jakin ez dakidan data batean M<sup>a</sup> Rita de Izquierdo-rekin lehenengoz, eta 1824ko azaroaren 27an berriro, Josefa Joakina Murgiondo Telletxea-rekin. Sei seme-alaba izan zituzten Luis eta beronen lehen emazteak, lehenengoa Luis Migel Astigarraga Izquierdo, Gasteizen 1798an jaiotakoa<sup>18</sup>. Seme hau izan zen aitaren erbestealdikoan haren ondasunak defendatzen ahalegindu zena<sup>19</sup>, eta 1833an Segurako Alkate hautatu zutena.

Arbasoengandik, eta batez ere aitarengandik jasotako kezka politikoak gidatu zuten semea ere, izan ere Astigarraga Ugarte bera politikaria izan baitzen.

## 2. HERRI-GIZONA ETA POLITIKARIA

Lehen urteetako bizitza profesionalaren ondoren (1787-1796. urteetan edo), Administrazioan, politikan eta irakaskuntzan eman zituen gure protagonistak bere indarrak onenak.

### 2.1. Itsas armadan ingeniari

1821ean bizialdiko meritu jakingarrienak aurkeztean, kasik autobiografia laburtu batean zera dio, artean gaztea zela egindako bidea deskribatuz<sup>20</sup>:

En el año 1796, siendo Ayudante mayor, y estando en virtud de Real orden agregado al cuerpo de Ingenieros de Marina, obtuve mi retiro con fuero militar y merced de Hábito<sup>21</sup> en la orden de Montesa. Aunque en conformidad de los fueros de Guipuzcoa, ningún militar podía ser elegido para empleos Municipales ni de Provincia, desde el inmediato año de 1797, la N. y L. Villa de Segura me

---

17. Benito shz 2003: 305. Non ibili ote zen Ameriketara? Hogeita hamar urte bete aurretik izan zen hori (1796a baino lehen). Hain gaztea zelarrik, pentsa daiteke, gainera, osabaren inguruan eman zituela Amerikako bere zerbitzuak, hau da, Kolonbian (Sta. Marta, Río Hacha).

18. Luis Miguel Astigarraga Izquierdo Gasteizen 1798ko maiatzaren 8an bataiatu zuten. Aginagalde-k landuriko Astigarragatarren genealogiatik jasotako datuak.

19. Gao. Elorza Civiles. N<sup>o</sup> 5152. Luis Astigarraga Izquierdo espedienteak: aitari bahitu zitzaion ondasun “lotu” (*vínculo*) baten erredituak eskatuz.

20. *Memoria* 1821: 18-19.

21. Hortaz, segurua da “Montesako Abituaren mesedea” egin zitzaiola; hortik aurrera, Abitua jasotzeko eskea egin zezakeela. Borja Aginagalde esaten didanez, Astigarraga ez da ageri Abitua hartutakoan zerrendetan. Ez zuen interesik izan prozedura aitzina eramateko, edo aldarte politikoez ez zioten lagundu gero asmo horretan.

hizo el honor de nombrarme por unanimidad de votos para su Alcalde y juez ordinario, á imitación de otros pueblos, que fundandose en la inobservancia de este fuero y en otras muchas razones muy poderosas, hacían el debido aprecio del mérito, idoneidad, y celo patriótico de sus hijos Militares. En años siguientes me ha dispensado repetidísimas veces igual honor confiriendome con la misma unanimidad y alternativamente los empleos de Alcalde, Regidor, y Síndico; así como también se ha servido honrarme la M.N. y M. L. Provincia de Guipuzcoa con sus encargos, comisiones y empleos, siendo uno de ellos el de Diputado general adjunto en las críticas circunstancias, en que se hallaba el pais en el año 1808.

Astigarraga Ugarte-ren albiste ezagunenak Eskola eta Pedagogia munduari lotuta ageri baldin bazaizkigu ere, bistan da, testu horren arabera, herri-gizon publikoaren jarduera ere biziki maite zuela gure protagonistak. Segura sorterrriari, Aizkorpeko bailarari eta Gipuzkoako Probintziari lotua ageri da jarduera hori<sup>22</sup>.

## 2.2. Herriko alkate

Hiru alkate-aldi izan zituen Astigarraga Ugartek (1797, 1805, 1806)<sup>23</sup>, 1797an eta 1806an zuzenean aukeratuta, eta 1805ean osaba Jose-ren ordezkotza harturik<sup>24</sup>.

Lehen alkate-aldian (1797) ohizko gobernu zereginen ondoan, bi egiteko bederen azpimarra daitezke Segurako Udaletxean. Konbentzioko gerratearen ondorioz (1794) gerrako kalte eta kaltetuei aurre egin behar izan zien: alde batetik, “cuenta de guerra” eta “daños de los franceses” bezalako atalak ikusten dira Udaletxeko Aktetan<sup>25</sup>, eta bestetik, Astigarraga Ugarteren bizitzan ardurara iraunkorra izango den Eskola eta Irakaskuntzarena. Alkate urtealdia bukatu aurretik, 1797ko abenduaren 19an, “Plan general para el establecimiento del Maestro de Gramática” bat ikus dezakegu udal agirietan<sup>26</sup>.

Baina alkate-aldi emankorrena 1805-1806. urteetakoa izan zuen. Ospitale-etako Arautegi berria moldatu, Segurako merkatu eta feriak defendatu, pilotaleku berria eraiki, Parrokiako benefizio-plangintza berria sustatu, irakaskuntzaz

---

22. Oraingoan ezingo dut biografia politiko hori osorik eman, baina hemen aipatutakoaz gain beste datu osagarriak ere bilatu beharko liriteke pertsonaiaren soslai politikoa osatzeko.

23. Neuk idatzi izan dudanaren kontra (Intxausti 2003b, 568; 2006a, 283), 1833an Segurako Alkate izandakoa ez zen izan L. Astigarraga Ugarte, beronen seme Luis Astigarraga Izquierdo baizik, Segurako Udal Aktetan garbi ageri den bezala: “Alcaldía de don Luis Astigarraga e Izquierdo”. Sua. A-1-16-14, fol. 82.

24. Sua. A-1-14-1 (1805-01-01): “Año de 1805. Alcaldía del S<sup>o</sup> D<sup>o</sup>. José Ignacio de Astigarraga Comandante de Marina de Sn. Sebastián, siendo su then<sup>o</sup> su sobrino el S<sup>o</sup> D<sup>o</sup>. Luis Astigarraga”.

25. sua. A-1-13-6, fol. 234, 248 (1797-01-21, 1797-03-22).

26. sua. A-1-13-6, fol. 267, 288-291 (1797-12-19).

arduratu eta batez ere Sandratiko bidearen indarberritzeaz arduratu zen (1805-1806)<sup>27</sup>.

### 2.3. Bide-proiektuen bultzatzaile

Azken arazo hau larria zen Segura eta Aizkorperako, 1760. hamarkadan Arlaban-goarekin Goierriko beste bide zahar honek indarra galdu zuenetik<sup>28</sup>. "Segura quedará totalmente desplazada una vez que se renuncia a convertir San Adrián en entrada para coches y comenzará una continua procesión de peticiones para el arreglo de aquel paso", Achón-ek idatzi duenez<sup>29</sup>.

Aizkorpeko udal politika eta Mendi-Partzuergoa (*Parzonería*) Sandratiko horren alde saiatu ziren, Probintzian eta Madrilen (1779, 1801, 1803), eta planoak egiteraino iritsi zen asmoa Astigarraga Ugarteren azken alkate-aldian, udaleko aktetan ikus daitekeenez<sup>30</sup>. Baina Astigarragaren asmoetan bide hari iraganbide berria bilatu zitzaion, ez Sandratikoa, Otsaurtekoa baizik.

Hain zuzen, asmo hau bertatik bertara lotuta dago kasik hamabost urte geroago Astigarragak argitara emandako Proiektu sonatuarekin.

Astigarraga Ugarteren aurreko historia politiko eta pertsonala ezagutzen ez duenarentzat txundigarria gertatu behar du halako titulua eman zitzaion liburu hark: *Memoria sobre el proyecto y la posibilidad de comunicar el Mar Océano con el Mediterráneo* (Bilbo, 1821)<sup>31</sup>. Eta are harrigarriagoa oraindik tituluaren jarraipena irakurtzen bada:

---

27. Sua. A-1-14-1 fol. 207-217 (Ospitaleak: 1805-01-15); A-1-14-1 fol. 253r-254r (Merkatua: 1805-03-27); A-1-14-2 (Pilotalekua: 1805-11-29); A-1-14-2, fol. 8 (1805-12-04: Benefizio-Plangintza); A-1-14-2 (1805-12-4: Sandratiko bide-planoa). Herriari orduan eman zitzaion, gero tradizio handikoa izan den kirol leku berria, pilotalekuarena: "Se trató acerca de la formación de la plaza, y ejecución de un juego de pelota para diversión pública, demoliendo la casa llamada de Aztiria, propia del vínculo de Aldaola, permutada con el equivalente de una tierra propia de esta Villa, sobre que otorgaron la escritura correspondiente los Señores comisionados D<sup>n</sup> Luis Astigarraga y D<sup>n</sup> José Luis de Aguirreburualde [...] para la ejecución de la obra, y de un cubierto que el público desea se construía cerca de la Iglesia aprovechando la teja, ripia y demás de dicha casa de Aztiria". Sua. A-1-14-02 (1805-11-29).

28. Ik. Intxausti, J. (2006b): *Segura en su pasado y camino*. Segura: Segurako Udala. 169-182; Achón Insausti, J. A. (1998): *Historia de las vías de comunicación en Gipuzkoa*. II. *Edad Moderna*. San Sebastián: Diputación Foral. 125-136.

29. Achón Insausti 1998: 134-136.

30. Achón Insausti 1998: 144.

31. Argitalpen-azalak zera dio, osorik: Memoria / sobre el proyecto y la posibilidad / de comunicar el Mar Océano / con el Mediterráneo / por medio de un canal, / que principiando en las inmediaciones de San Sebastián, y / siguiendo por Hernani, Urnieta, Andoain, Villabona, Tolo- / sa, Alegría, Legorreta, Villafranca, Beasain, Segura y Ce- / gama en Guipúzcoa, y por Alsasua, Valle del río Araquil, / Artazco [sic], y otros pueblos de Navarra, llegue a unirse / con el de Tudela. / Interesante hallazgo / del punto de vertientes á ambos mares, hecho por el bri-/gadier de Ingenieros D. Carlos Lemaure en la altura de ot-/saurte cerca de Cegama, como único que presenta la natu-/raleza para la construcción de este canal; é importancia / de que se restablezca desde luego el antiguo camino de posta / por dichos puntos, y por varios pueblos de Alava: con expresión de la Reales Ordenes expedidas sobre el asunto, ...



...POR MEDIO DE UN CANAL, que principiando en las inmediaciones de San Sebastián, y siguiendo por Hernani, Urnieta, Andoain, Villabona, Tolosa, Alegría, Legorreta, Villafranca, Beasain, Segura y Cegama en Guipúzcoa, y por Alsasua, Valle del río Araquil, Artazco [sic], y otros pueblos de Navarra, llegue a unirse con el de Tudela.

Hala ere, ez dago sobera harritu beharrik: Egitasmoak kanal hori egitea serioски proposatzen zuen, premiazko topografia lanak egin eta gero, baina kanalaren ondoran Otsaurteko bide-kaminoarena argi eta berriro defendatzeko aukera edo aitzakia da kanalaren hori. Aski da liburu horretako aurkibidea begiratzea, bidearenari eman nahi zitzaion garrantzia jakiteko: “Extracto de la representación dirigida al Ministerio por el Comandante de Marina de San Sebastián sobre el restablecimiento del antiguo camino de S. Adrian” (1803) eta ondoko kapituluak (ik. I. Eranskina)<sup>32</sup>:

Me tendré por muy dichoso si publicándose de este modo en todo el Reyno el importante hallazgo del punto de vertientes á ambos mares en la falda de Otsaurte, se promovieren los dos proyectos, de que trata esta Memoria [*kanala eta errepidea*], ó si a lo menos se diere principio al restablecimiento de nuestro antiguo camino de Postas por la parte más baja de la cordillera de S. Adrián, con arreglo a las Reales órdenes que se han expedido sobre el asunto, y á los pasos dados por las Provincias de Guipuzcoa y Alaba, por los pueblos interesados principalmente en el proyecto.

Bide-kanalen kontu hau kezka eta ahalegin zaharretatik, eta 1803ko maiatzaren 9an Madrilen Jose Astigarraga Agirrek Luis ilobaren bidez Ministerioan aurkeztutako Txosten batetik zetorren, eta hark Ministerioan eta handik eskatuta Aldundietan ere egin behar izan ziren ikaslan eta eztabaidetatik<sup>33</sup>:

...una enérgica representación [*zen osabaren hura*], en que se exponían sucintamente las razones que le ocurrían como á natural del pais y como á comandante de Marina, para que el Gobierno protegiese y facilitase la ejecución de esta obra, que a un mismo tiempo era sin la menor duda tan asequible como interesante al bien general del Estado.

Urte haietako txosten eta abar Astigarraga Ugartek 1821eko bere *Memoria* horretan laburtu zituen, egitasmoak izandako joan-etorriak eta onartutako ebazpen ofizialak<sup>34</sup>. Fronte ezberdinetan ahalegindu zen Astigarraga Ugarte, bide-kanalena bultzatzeko: Mendi-Patzuergo ezberdinen artean, Gipuzkoa eta Arabako Aldundietan, Gipuzkoako Batzarrean (Tolosa, 1804)<sup>35</sup>, eta hori dena sakatzeko

---

... y / de los pasos dados por ambas Provincias y otras Comunidades. / Por D. Luis de Astigarraga y Ugarte, Miembro de la Sociedad de Instrucción de París, etc. / Egestatem operata est manus remissa: manus autem fortium divitias parat. Proverb. Salom. Cap. 19, vers. 4. En Bilbao: En la Imprenta de D. Pedro Antonio de Apraiz. / Año de 1821.

32. *Memoria* 1821: 8.

33. *Memoria* 1821: 11, 13-16.

34. *Memoria* 1821: 16-26.

35. Batzar Nagusiak: Tolosa, 1804-07-03.

baita Txosten teknikoa prestatzen ere, 1804ko irailean, Carlos Lemaur Teniente Koronel Ingeniaria teknikari zela<sup>36</sup>. Lortutakoaren berri honela eman zuen idazleak, *Memoria*-ko vi-vii. kapitulu-izenburuetan:

Interesante hallazgo del punto de vertientes al mar Oceano y Mediterráneo, ignorado hasta esta época, como único que presenta la naturaleza para la construcción de un canal que comuniqué á ambos mares; y posibilidad de este gran proyecto sin tantas dificultades como el canal de Murcia.– Descripción del camino proyectado por la falda de Otsaurte; su longitud y ventajas comparadas con los defectos del actual camino de Salinas; y cálculo del coste que tendrá el nuevo trozo que se intenta construir por aquel punto.

Otsaurteko bide honen asmoak, eta kanalak zer esanik ez, arerio bortitzak zituen Probintzian, Arlabangoaren aldeko guztiak noski, eta gauzak atzeratuz joan ziren. Jose Astigarraga Izquierdo seme zinegotzia, adibidez, Otsaurteko egitekoari heltzeko asmoekin zebilen 1830ean ere, baina Erregek ukatu egin zion plano berria egiteko baimena, nahiz eta eskea 35 herri ordezkatzu egin zuen<sup>37</sup>.

Hogeiren bat urte geroago arte, Goierrik ez zuen bide nagusi berria bere lurretatik pasatzen ikusiko, eta orduan ere, berriro Aizkorpe albora geratu zen, N-I errepidea Etxegarretetik joan zenean (1851).

Honela bukatu zen bide-kanalen asmo hura, zeinetan Astigarraga Ugartek gogo eta indarrak jarri zituen, eta egiten baldin bazuten, bere ondaretik ere ahal zuena jartzeko prest agertuz. Nondik zetorkion, bada, gizon honi herri-lanetarako halako grina? Zein habia eta ezpaleko gizona zen bera?

## 2.4. Euskal “argiztatu” eta liberala

Astigarraga Ugarteri bi mundu ideologiko eta politikotan bizitzea egokitu zitzaion: Erregimen Zaharrean jaio eta hazi zen, gizon egiteraino, bere ogibide eta harremanak testuinguru hartan izan zituen, itsas armadako zerbitzuetatik erretiratu aurretik (1796). Frantziako Iraultzaren (1789) eta hemen Konbentzioko Gerratearen (1794) garaiak ziren. Ikusi dugu, horren ondorioz, frantsesek egindako kalteak konpontzen ahalegindu behar izan zuela, herriko Alkate egin zute-nean (1797).

Inguruan historia hori bizi izandako gizonak zein bide hartuko ote zuen ondo-ko bere jokamolde politikoa?

Euskal “argiztapenen” mundutik zetorren bera, eta Frantzia zen Astigarraga Ugarterentzat aurrerapen berrien herrialdea, ideia berriak ez ezik egintza berriak ere iradokitzen zituen. *Memoria*-ko sarrera hitzek erakusten dutenez, gure protagonistak mirespenez begiratzen zion Frantziari: Luis xiv.ren garaiko Colbert-en

36. *Memoria* 1821: 38-45.

37. Gao. JM IM 2-6-56.

obrak eta kanalgintza handietatik hasita, Frantzia zen Penintsulako garapen ekonomikorako eredia<sup>38</sup>.

Herrien aitzinamendua oinarritzko egiturazko obren gain eta hezkuntzako baliabideen bitartez (eskola) eraiki eta segurtatu behar zen. Erreforma politikoen premia sumatzen zuen, zalantzarik gabe, eta 1800.eko hamarkadan bizi izandako kudeaketa ezinak (Probintziako eta Madrilekoak, denak batera) liberalismo erreformatzailearen aldera lerrarazi zuten.

Azpitarratzekoa da hemen nola Sandrati/Otsaurteko kamino/kanalen arazoa Astigarraga osaba-ilobek Probintzian ez ezik Madriletik eraginez bideratu nahi izan zuten. Hortaz, hurrengo hamarkadetako bide-sarearekiko herri-botere birbanaketaren auzia mahai gainean jarri zuen oso goizik (1803): Gipuzkoako bideen ardurak ordu arte bezala Udalerriena izan behar zuen, ala Probintziarena? Bidegintza modernoa Gipuzkoako Batzarretatik ala Madrilgo Ministerioetatik kudeatu behar zen? Arazoa Astigarragak ez zuen jarri, noski, modu soil honetan, baina biziki saiatu zen Gortetik hemengo Batzar eta Aldundietan proiektu berriak susta zitzen.

Liberalismo politiko, ekonomiko eta ideologikoa, segur aski bere gordintasun osoan hartu gabe, Espainiako aldarre politikoez iradoki ziotenaren arabera, bere jarrera politiko praktikoa azalduz joan zen: 1809an Irungo aduanetako Diruzain Nagusi izendatu zuten, Jose Bonaparteren zerbitzuan jarduteko. Horrek bere ordaina ekarri zion gero, eta erbestera joan behar izan zuen: beranduenik 1815ean zegoen Parisen.

1820an behintzat itzuli ahal izan zuen berriro Hegoaldera, Riego-k Erregeri Konstituzioa ezarri ondoren. Hirurteko Konstituzionalean (1820-1823), Astigarraga Ugarte berriz ere gizon publiko bihurtuko da, Prentsan bezala Herri-Erakundeei egin zizkien proposamen zaharberrietan. Hamabosten bat urte lehenago eskuetatik utzi behar izan zituen egitasmoei gogoz heldu zien oster, adiskide politikoen artean harrera hobea izango zutelakoan.

Probintziako Batzarrak begi-bistatik galdu gabe, eta beraiek aintzakotzat hartuz, Astigarragak ongi zekien Erreinuako politika konstituzionalak porrot egiten bazuen, etorkizun zaila izango zutela bere hemengo proiektu ekonomiko eta pedagogikoez. Eredu berriak ere Madrilen zeuden, batez ere: Parisen ikusi eta ikasitako eskola-lan lankastertarrak bezalatsu, Flórez Estrada<sup>39</sup> ekonomista liberal handiaren izena errepikatuko du behin eta berriz bere *Memoria*-n (1821).

Azpitarratzekoa da hemen desamortizazioen auzian zein jarrera erakutsi zuen Astigarragak. Ez da arazo horretan teorikari orokor bat, baina Gipuzkoa-Araba arteko Mendi-Partzuergoko ondarearen aurrean liberalismo klasiko nagusiak erakutsitako ideia bertsuak izan zituen Astigarraga Ugartek ere, zera baitio bere *Memoria* ausartean, orduan indarrean zeuden hiru Mendi-Partzuergoen emankortasun eskasa salatzen zuela<sup>40</sup>:

38. Frantziako kanalen eredia gogorarazten du, Languedoc-ekoa adibidetzat jarri (*Memoria*, 3-5).

39. Artola, M. (1999): *La España de Fernando VII*. Madrid: Espasa-Calpe. 329, 486, 536, 619.

40. *Memoria* 1821: 80.

...cada una de estas tres Comunidades [parzonerías] posee separadamente unos terrenos inmensos de pastos, bosques, y arboledas, que en poder de ellas van desmereciendo y menguándose cada año de modo increíble, los cuales en manos de particulares prosperarían considerablemente con un incalculable beneficio de los compradores y del público.

Herri-lurren berehalako desjabetze haiek nondik nora joan ziren ezagutzeko parada eman digu gero historiak, eta historialariek zorrotz salatu dituzte garaiok burgesiaren jokabidea eta hainbat herritar xumek desjabetze haien ondorioz galdutakoa.

## 2.5. Kazetaritzan

Oro har, Astigarraga Ugarteren ideia politikoei gagozkiela, gogora dezadan beraren kazetari-lana ere. Parisetik itzultzean, Bilbon jarri zen bizitzen eta J. A. Zamakola-rekin batera *El Despertador* abiarazi zuen Bizkaiko hiriburuan, astean bitan agertzeko zena<sup>41</sup>. Ez zuen izan bizialdi luzerik, eta bi epealdi laburretan 17 zenbaki eman zituen argitara, lehenengoa 1821eko irailaren 10ean, eta azkena 1822ko martxoaren 8an<sup>42</sup>. Argitalpen hark bere osagarria, hau ere laburra, *El Patriota Luminoso*-n izan zuen, hau da, aurrekoaren bi epealdien artean Lartigue-rekin elkartuta kaleratu zuena<sup>43</sup>. Bien arteko jatorrizko batasuna erakusten duten bata bestearen arteko erreferentziak ez dira falta bietako orrialdeetan, eta Astigarragak maite zuen Otsaurteko kamino-kanalen berririk ere badago jasota<sup>44</sup>.

Bi kazeta hauek garbiki militanteak dira, haizatzen dituzten ideia politikoei bezala atzerri eta Espainiatik jasotzen dituzten albisteetan ere. Ohizkoa ziren "Noticias Estrangeras" saila, ondoko "Advertencia" nahiz "Reflexiones" politikoren bat, edo herrien historia politikotik ateratako azalpen ereduak, betiere Erregimen Konstituzionalaren erro historikoak erakutsi eta beraren bikaintasuna argitara ekarri nahi dutenak. Eta afan handiz agerian jarri nahi da nola 1812ko Konstituzioa euskal Foruen luzapena eta hobekuntza den. Tesi politiko horren alde eta kontra erabilitako arrazoiak metatu eta aldekoak indartzen saiatu zen *El*

---

41. Bilboko Prentsa liberalaren lehen urteak ezagutzeko ik: Fernández Sebastián, J. (1989): "Orígenes de la Prensa. Periodismo, política y sociedad". In: (1989): *Bizkaia. 1789-1814*. Bilbao: Dip. Foral de Bizkaia. (J. A. Zamakolari buruz: 159); Id. (2002): "Periodismo, Liberalismo y Fuerismo". In: Rubio Pobes, C.; Pablo, S. de (2002): *Los liberales. Fuerismo y liberalismo en el País Vasco (1808-1876)*. Gasteiz-Vitoria: Fundación Sancho el Sabio. 335-372. Astero birritan atera zen Bilbon *El Bascongado liberal*, 1813-1814. urteetan: 162-163.

42. Hamazazpi zenbakiak elkarren jarraian zenbakiztaturik daude, nahiz eta tartean hutsunea dagoen (1821eko urriaren 27tik 1822ko otsailaren 28ra); hutsarte horretako argitalpena izan zen *El Patriota Luminoso*, fisikoki eta ideologiaz berdina. Astelehen eta asteazkenetan agertu izan zen *El Patriota* hau: Ruiz de Gauna, A. (1991): *Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos xix y xx*. Donostia/Gasteiz-Vitoria: Eusko Ikaskuntza/Eusko Jaurlaritz. 149.

43. *El Patriota Luminoso*-k 10 zenbaki eman zituen argitara, 1821eko urriaren 31tik 1821eko abenduaren 1era. Ruiz de Gauna 1991: 305 (20ren bat izan ote ziren dio honek). Nik eskuetan izan ditudanak, hamar bakarrik dira, eta denak segida kronologiko osoan emanda daude.

44. *El Patriota Luminoso*. 1. zenb., 1821-12-01.

*Despertador* bere lehenengo zenbakitik hasita<sup>45</sup>. Bi aldizkariak egin zuten beren eginahala, konstituziozaleen testuak hedatzeko, Errege konstituzional eta Gobernuaren lege eta dekretuak, eta Buru Politikoen azalpenak ezagutzera emateko.

Kazeta hauetako editorialak edo izan daitezkeenak sinatu gabe agertzen ziren, eta, tamalez, ez daukagu Astigarragaren iritzi-artikulu sinaturik ere. Horregatik, batik bat hurbilduz antzeman behar ditugu gure protagonistaren ideia politikoak. Astigarraga Ugarteri bere "alderdi" politikoa izendatu behar bagenio, ondoko datuok har daitezke aintzakotzat: frantsestuen artean egon zela badakigu (1809); era berean, Espainiaren erreformarako ereduak atzerrian begiratu zituela ere bai; bestalde, fernandotarren zigor politikoek markatu zuten (1815), eta segur aski ez zuten Riego-ren altxamendua baino lehen etortzerik izan (1820).

Ondoko hilabeteetan, beste frantsestu asko bezala, liberal moderatuen lerro nagusian eman dezakegu inondik ere Astigarraga (1820-1823)<sup>46</sup>; bigarren "aldi absolutistako" ibilera politiko-administratiboan urte haietako lerro liberalagoan egon daiteke (1823-1833). Ez da ahaztu behar urte horietan lortu zuela Madrilen Segurako Eskolarako baimena. Baina berehala karlisten harrobia bilakatuko zen absolutista "apostoliken" mugimendutik at geratu zen Astigarraga, ondoko zantziek erakusten dutenaren arabera: Gerra Karlista hastearekin batera Astigarragatarak desagertu egin baitziren Segura karlistatik, esan bezala babesa Gasteizen bilatuz.

Jarrera politiko hori aurreko urteetatik bideratuz zetorren familian, eta 1823-1840etako bidegurutze politikoetan erabateko hautua egin behar izan zuten Astigarraga aita-seekek, politika-bideen artean.

Luis Astigarraga Izquierdo Alkateari –semeari, alegia– suertatu zitzaion arazo dinastikoaz Segurako herriari azalpen ofiziala eman beharra (1833), arazo dinastikoa alde aurretik konpondu behar zuten Gorteetako Akta (1789) herrian ezagutzera emanez. Udal Kontzejuan egin behar izan zuten, lehenengo, eta herriko Bikarioari pulpitutik beste hainbeste egingo ote zuten galdetuz, gero:

... si tendría inconveniente de leerlo en el púlpito un día festivo ó conclusión de la Misa Mayor y explicar en bascuence a los asistentes lo sustancial del contenido de dicho testimonio [*del acta de 1789 sobre sucesión a la Corona*].

---

45. *El Despertador*, 1. zenb., 3. or (1821-09-10): "Los lectores del prospecto de este periódico habrán visto no sin admiración que se dice en él, que los Bizcaynos han perdido poco ó nada en haber admitido la Constitución Política de la Nación Española, y que antes bien han ganado cuanto pudieron desear, puesto que habiéndose restablecido las antiguas Leyes fundamentales de esta Monarquía, que son precisamente los Fueros antiguos de España y Bizcaya, han venido por este medio y por el influjo de las Cortes á hermanarse con los habitantes de las demás provincias de la Nación que fueron sus aliadas en otros tiempos y compañeros de confederación".

46. Hain zuzen, Hirurteko Konstituzionalean frantsestuei egotzi zitzaien familia politiko liberalean gero eta nabarmenago indartzu zihonan lerro politiko liberal moderatua sustatzea (Artola 1999: 549-550).

(Ikusten da garrantziko egokieratan, 1723ko Ordenanatzak aldarrikatzean egin zen bezala, euskaraz egin behar zirela horrelako aldarrikapenak)<sup>47</sup>.

Jakina denez, 1789ko Akta hark ez zuen aski indar izan, zeruertzean ageri zen gerra-ekaitza ekiditeko, eta gerra onartezina gainera etorri zitzaizen Astigarragarrei ere. Batzuek mendira jo zuten bezala<sup>48</sup>, beraiek hiri seguru batera alde egin zuten, Seguratik kanpo, orduan bertan edo geroxeago, Gasteiza<sup>49</sup>. Ez zuten hau hiri arrotza, lehendik ere han bizi izandakoa baitzen sendia.

Hortaz, ez zuen izan jarraitzerik Astigarraga Izquierdo-k alkatetzan, eta J. M. Zurbano ikusten dugu Udaletxean Alkate-ordezkotza hartzen; urte hartako urriaren 16az geroztik Astigarraga Izquierdo ez da ageri Aktetan<sup>50</sup>. Astigarragarren ez dirudi, bada, herriko tradiziozale edo erregetiar absolutisten artean zeudenik, eta erabat karlista izango zen Seguratik aldendu egin ziren.

Astigarraga Ugarte-ren familiako azken urteetako kontuak dira horiek, baina itzul gaitezen aurreko hamarkadetara, aurkeztu ez ditudan Astigarraga Ugarteren bestelako alde ez-politikoak begiratzeko.

### **3. ESKOLAGINTZAN ETA PEDAGOGIAN**

Herri-lan materialak ez ezik giza kultura eta izpirituari zegozkienak ere maiteak izan zituen Astigarraga Ugartek, eta bizitzan zehar behin baino gehiagotan erakutsi zuen kultura eta hezkuntzaren bere estimua. Bi modutara saiatu zen horretan, ideia eta metodo pedagogiko-didaktiko berritzaileak aurkeztuz lehendabizi, eta Eskola berrien sustatzaile bezala, gero. Bietarako pausuak eman zituen, bai bere inguru pribatuan, bai bizitza publikoan (Udalek edo Probintziak abian jar zitzaketen plangintzetan), eta horretan aitzindaria izan zen 1800eko lehen hamarkadatik hasita.

#### **3.1. Metodo berriak hedatzen**

Arestian esan den bezala, Goi-lkasketak egindako gizona zen Astigarraga Ugarte, eta bizitza politikoan 1805-1806.eko Alkate-aldietan erakutsi zuen jada Eskola eta Irakaskuntzarekiko zuen bere lehia (ikusitako hori ere), baina, artean, Segurako herriaz arduratuta bakarrik.

Astigarraga Ugarteren proiektuen artean, 1807an Gipuzkoako Batzarretara eramandakoa aipatu behar da lehenengo. Gerra napoleonarra lehertzeko zego-

---

47. Sua. A-1-16-4, fol. 91r (1833-06-15).

48. Ondoko asteetako udal aktetan ikus daitezke armak hartuta karlistekin herritik joan zirenen zerrendak.

49. Eskueran ditudan 1833tik aurrerako datu denak Gasteizkoak dira, behintzat.

50. Sua. A-1-16-4 (1833-10-16ko eta hurrengo Aktak).

en, eta oso urrun Hirurteko Konstituzionalak ekarriko zituen eskola-proposamen berriak.

Donostiatik eta 1807ko ekainaren 11ko datarekin, Azkoitiko Ez-ohiko Diputazioan aurkeztu zuen testuan Astigarraga Ugarte teoria pedagogiko berriak Gipuzkoan ere hedatu eta ezartzeko premia ari zen. J. H. Pestalozzi (1746-1827) maisu eta pedagogoaren ideiak goraiatzen zituen, erabateko eskolaberritze bat egiteko. Aurreko hogeita bost urteetako ahaleginen ondoren, hain zuzen 1805ean lortu zuen maisu suitzarrak bere Eskola berri arrakastatsua Yverdon-en irekitzea. Hortaz, Astigarraga Ugarte, inondik ere, adi-adi zebilen munduko ideia berrietara begira, eta Erakunde giputzak jakinaren gainean jarri nahi izan zituen 1807ko urte horretan.

Urte berean, Hernanin bildutako hurrengo Diputazio Arruntaren eskuetara pasatu zen Astigarragaren Txostena, eta Erakunde honek Batzorde bat sortu zuen, Pestalozzi eta metodo onenak gogoan hartuta, Probintziako Lehen Irakaskuntzarako Plana molda zezan. Garaiak ez ziren batere samurrak, eta urte beteren buruan artean Batzordea bilerarik egin gabe zegoen, Elgoibar-ko Batzar Nagusiak bildu zirenean. Berehala gerra piztu zen, eta honelako proiektuek lehentasun guztia galdu zuten, gerraren zurrumbiloan<sup>51</sup>.

Astigarragak berak ere bestelako lanetara iragan beharra izan zuen, eta 1809an Irungo Aduanetako Diruzain Nagusi bezala jardungo du lanean, lehen-ixeago esan dudana bezala. Politika eta administrazio-lanak nagusitu ziren beraren eguneroko jardunean.

1808-1812.eko urteetan Cádiz-tik Espainia osoan eraikitako Erakunde-sistema konstituzionala goitik behera etorri zen 1814ko maiatz-ekainetan<sup>52</sup>. Gerrate-ondoko "garbiketa" politikoa abian jarri zen, lehenengo frantsestuen kontra eta geroxeago liberal kadiztarren aurka, izan ere erresistentzia liberala tesuinguru horretan gogortuz joan baitzen. Gezurra badirudi ere, "pronunciamiento" deitzen tradizio espainiarra liberalen eskuetan jaio zen, eta 1814-1819.etan sei altxamendu ezagutu ziren, Riego-renaren aurretik<sup>53</sup>. Hobe zuen, bai, Astigarragak Paris aldean itxaron, atzerriko aurrerapen berriak ezagutzen zituen bitartean.

### **3.2. Parisetik dator notizia**

Altxamenduen artean, azkenik Riego-renak arrakasta izan zuen, eta frantses-tuek eta liberalek erbestetik itzuli eta agintera igotzeko aukera izan zuten. Itzulitakoan artean zegoen Astigarraga Ugarte: arestian esan bezala, etorri eta

---

51. Benito: shz, 305-306.

52. Artola 1999: 420. "La nueva máquina política no se distingue en absoluto de la que dejó de funcionar en mayo de 1808, ni existe tampoco el menor interés (...) por introducir la más mínima novedad institucional, excepción hecha de la ya aludida limitación en las facultades del Consejo de Castilla".

53. Artola 1999: 489, 492, 495, 496, 500, 501.

Bilbon jarri zen bizitzen<sup>54</sup>. Gipuzkoako Buru Politikoari (Gobernariari, alegia) idatzitako gutunean (1820ko urriaren 17koa), hau dena gogorarazten du bere buruaz ari dela<sup>55</sup>:

...habiendo residido cerca de dos años en París, se ha instruido medianamente en el nuevo método de enseñanza mutua, como lo verá V. S. por la adjunta traducción; y noticioso ahora de que V. S., y la Diputación Provincial, como encargada por el párrafo quinto del artº. 335 de la Constitución de promover la educación de la juventud, tratan de introducir en esa Provincia este excelente método; no puede menos de molestar la atención de V. S. con esta humilde representación, ofreciéndole sus cortos servicios, sin más interés que el de ser útil a su patria, caso que resuelvan establecer un curso Normal gratuito de dicha enseñanza, como va a verificarse en esta Villa de Bilbao a instancias del exponente. {...}. Bilbao 17 de octubre de 1820.

Euskal Erakundearen eskuetan jarritako txostenetan behin eta berriz azpimarratu zuen Astigarragak kanpoko ideia eta metodo berriez lortu zuen ezagumendu zuzenaren balioa, eta Pariseko *Société pour l'Instruction*-eko bazkide bezala aurkeztu zuen bere burua, egindako ikastaro berezituaz berri emanez<sup>56</sup>.

Ikasi ez ezik, Elkarteko kide izatera ere iritsi zen, bada, eta Penintsulara itzulitzean interesik handiena jarri zuen, bere txostenetan, han ikasitakoen eta atzerriar zituen harremanen berri ematen (hauek, proposatutako ekimen berrien bermea zirela adieraziz). Benito-k azpimarratu duen bezala, Astigarraga Madrileko Eskola Normala (1818) jaio aurretik zebilen Irakasleen prestakuntzarako bide aurreratuenen bila<sup>57</sup>.

Pariseko *Société pour l'Instruction Élémentaire* hau jatorriz ekimen pribatuak sortutako Elkartearen izan zen (1815), baina laster Gobernuaren babesa ez ezik "elkarren arteko irakaskuntza" ahalbidetu eta hedatzeko berorien sustapena ere irabazi zuena. Ez zen mugatu, gainera, eskoletan metodo berria indarrean jar-

---

54. Ez da pentsatu behar 1820an frantsestuak erbestetik itzultzean, susmo txarrak eta baldintzarik gabeko harrera egin zitzaizkion: absolutistek bezala liberal espainiarrek bihotzez gorrotatutako politikariak ziren haiek, berrizaleak izan edo Jose I.aren zerbitzura ibili zirelako. Lehenengo batean, Gobernuak euskal Probintzietara bildu zituen halako espainiar guztiak, eta erabaki horren ondorioz Astigarraga Ugartek etortzean egoitza Euskal Herrian bertan hartzerik izan zuen. Cfr. Artola 1999: 537.

55. Gao. JD IM 4-6-32.

56. Gao. JD IM 4-6-32. Ziurtagiri baten gaztelaniazko itzulpenak zera dio: "Prefectura del Departamento del Sena. Certifico que el Señor Astigarraga (Luis) Español refugiado, antiguo Tesorero Principal de Aduanas de Irún, ha seguido el Curso Normal de enseñanza mutua desde el mes de Enero hasta el veinte y dos de Febrero de 1817, á fin de introducir este método en España, quando volviere á su patria. – El Sr Astigarraga ha asistido con exactitud a todas las Sesiones, y habiéndose concluido el Curso, ha adquirido bastante conocimiento del método, para poderlo enseñar a sus Compatriotas. París, 22 de Febrero de 1817. *El Inspector de las Escuelas Elementales, Profesor del Curso Normal, Nion*". Hurrengo beste ziurtagiri batek, berriz, "se halla perfectamente instruido, y en estado de enseñarlo" dio, Erakunde hartako Lehendakari-orde Laborde Kondearen sinadurarekin.

57. Benito 2003 shz: 306.



tzera, horretarako premiazkoa zen Maisu-Eskola abiarazi zuen, Eskola Normala alegia<sup>58</sup>.

Elkarte horren lehen gurasoak hiru izan ziren: Charles de Laysterie, Alexandre de Laborde (1773-1842), eta Joseph-Marie Gérando (1772-1842). Lehenengo biak ziren batez ere guraso teorikariak, eta hirugarrena horrezaz gain sustatzaile politiko-instituzionala (filosofoa eta Estatu-Kontseiluko kidea baitzen Gérando). Hain zuzen, Astigarragak aurkeztutako ziurtagirietan lehenengo bien sinadurak jaso zituen, bere gaitasuna frogatzeko. Hortaz, harreman onak zituen gure maisu pedagogoak Parisen<sup>59</sup>.

Astigarragak eta urte beretan Gipuzkoako Herri-Erakundeek ere sustatu nahi zuten “elkarren arteko irakaskuntza”, oraingoan J. Lancaster (1778-1838) pedagogoren arrastoa zetorrena, hau da, Maisuen eskasiak eta ikasle-arteko elkarren laguntzaz baliatzeko asmoak bultzatutako esperientzia zen. Euskal Herrira xix. mendeko lehen hamarkadetan iritsi zen korrante pedagogiko berri hau<sup>60</sup>.

Metodo lankastertarra Ingalaterratik hedatuz joan zen (*Improvements in Education* liburua, 1803; Lancasterian Institution, 1810), eta Europan ez ezik Amerikara (1818) ere zabaldu zen. Hortaz, egun-eguneko metodoa zen Astigarragak proposamena egin zuen une hartan (1820).

### 3.3. Eskolak irekitzen: Donostia, Segura

Hautapen pedagogiko berrien testuinguruan, 1820ko urtea ez zen batere desegokia ageri, agintean martxoaz geroztik liberalak zeudelako, eta 1812ko Konstituzioak Hezkuntzarako ezarritako eginkizunak metodo berrien bidez egikaritu nahi zirelako<sup>61</sup>.

Gipuzkoako Aldundiari bidalitako *Memorial*-ak 1820ko urriaren 17ko data darama<sup>62</sup>, zoritxarrez, beranduegia, Aldundia aurreraturik baitzebilen eskola-berrikuntzen kontuan. Jada abiarazita zuen bere aldetik ekimen berri bat: Madrilera bidalita zeukan Tolosako Insue maisua metodo berria ikastera, eta Tolosa bertako eta Mutrikuko eskoletan ari ziren lehenagotik “elkarren arteko ira-

---

58. Ikus Société pour l'Instruction Élémentaire-ren historia ezagutzeko : Gontard, M. (1959) : *L'Enseignement Primaire en France, de la Révolution à la loi Guizot (1798-1833). Des petites écoles de la monarchie d'ancien régime aux écoles primaires de la monarchie bourgeoise*. Paris. Les Belles Lettres. 281-296.

59. JD IM 4-6-32. 1817-10-17 datarekin Bilbotik Aldundiari egindako proposamenaren eranskinean jasotako ziurtagiriak.

60. “Elkarren arteko” metodoa Euskal Herrian nola landatu zen jakiteko: Lasa et al. 1968: 42-47. Historia horretan aparteko lekua airtzen dio historialariak Astigarragari.

61. Benito 2003 shz: 306. Probintzietako Gobernu eta Aldundiek beren zereginen artean “promover la educación de la juventud conforme a los planes aprobados” izango dute (1812ko Konstituzioa: 335. art., 5. pasarte).

62. Gao. JG IM 4-6-32.

kaskuntzaz” baliatzen. Bigarrenez kale egin zuen Astigarragak Administrazioari bere asmoak saltzean...

Baina erne zegoen, ekimen praktiko berriak Gipuzkoan nondik nora joango ote ziren. Donostian, adibidez, ekimen ofizialik ez zen falta, Hiri honetan eskola-berritze baten premia nabaria eta sentitua baitzen liberalen artean<sup>63</sup>. Eta, inondik ere, berritzeak metodo berriez baliatzea ere esan nahi zuen, lankastertarraz hain zuzen. Horregatik 1822ko azaroaren 16an Donostiako Udalak Manuel Etxeberria izendatu zuen “director de la Escuela de Enseñanza Mutua”, hamar mila errealeko soldata eta lankideak ematen zizkiola<sup>64</sup>. Manuel Etxeberria ezaguna zen Probintzian, Mutrikun jarri baitzuen halako Eskola bat (1821), eta Bilboko Udaletik ere eskatu zituzten maisu mutrikuarraren albisteak<sup>65</sup>. Astigarraga bera ez ote zebilen, orduan, tarteko lanak egiten?

1820ko urrian Probintziari bidalitako deia berandu heldu baldin bazen, Donostian, ustegabeen noski, aukera berria sortu zen laster. Lehen udal ahaleginak porrot egin zuten, Etxeberriak lankide onik izan ez zuelako ere bai<sup>66</sup>. Bilbotik Donostiara etorri zen Astigarraga, eta Hirurteko Konstituzionala amaitzean, bere Eskola-proiektuari heldu zion. Agirietan zehaztu ez badut ere, 1823-1824ko ekimena da Donostian ireki zuen Eskolarena<sup>67</sup>.

Hala ere, Donostia utzita, laster jaioterrirako bidea hartu zuen Luis Astigarragak, eta 1825eko udazkenean Seguran dugu gure maisua. 1825-1829etan ireki zuen hemen Eskola, legezko traben artean Erakunde ofizialetan egin behar izan zituen ibilera aspergarriei gaina hartuz. Bazekien kudeaketa politiko-administratiboa nola eraman. Oztopoez eta ezezkoek ez zuten kikildu, eta bere gisara eta bere kabuz aurrera egin zuen.

Hamar-hamabost urte sorterritik kanpo ibili ondoren, prest zegoen Irakaskuntzaren goragoko maila batean (oraingoan, Humanitateen Eskolan) dirua eta lana sartzeko. Horretarako baimenak behar eta lehendik zituen harremanez baliatu zen: lehenengo, herriko Irakaskuntza Batzordeaz, eta beronen bidez Hiriburuko Batzordea eztenkatu zuten premiazko baimenak eska zitzan (eskaria 1826ko ekainean bidali zitzaion berari).

Baina, baimena etorri aurretik ere (1825eko udazkenean), Segurako bere etxean irekita zuen Astigarragak Eskola, eta lehen urrats hori eman ondoren egin

---

63. Udal Konstituzionala indarrean jartzean urte berean heldu zitzaion eskolen arazoari (1820-07-08): “Nota de los establecimientos de Instrucción existentes en esta jurisdicción [de San Sebastián]”. duao. H-00310-L, fol. 549-553. Udalerriko eskola-sistemaren egoera deskribatzen da bertan, eta ez da falta elkarren arteko irakaskuntzaren balioespenik.

64. Duao. H-00312-L, fol. 477-479.

65. Lasa et al. 1968: 44-46.

66. “El primer intento revolucionario de alterar los métodos tradicionales pedagógicos [1820-1823], por vía oficial fue un fracaso” (Lasa et al. 1968: 47). Eta hori arrazoi ezberdinengatik, Donostian, esate baterako, maisu lagunek ez zituzten onartu erraz ez Etxeberria eta ez berorren metodoak.

67. Hala dio berak. Segurako ekimenak (1825) zuen bermea eta seriotasuna azpimarratu nahirik, noski.

Intxausti, Joseba: Luis Astigarraga Ugarte, politikari eta pedagogo euskaltzalea (Segura, 1767 ...

zuen Hiriburura baimen-eskea. Dena den, eskualdean inguru hurbileko babes bazuen, nonbait, proiektuak, eske-agirian esaten denez<sup>68</sup>:

...ha obtenido la aprobación no sólo de esta N. Villa y su vecindario, sino también la de los Ayuntamientos de otras ocho Villas de la circunferencia, del Sr. Diputado General, del Clero y de otras muchas autoridades, habiendo dirigido anteriormente la solicitud competente a la Superioridad.

Sostegu sozial hori gorabehera, ez zen samurra gertatuko baimen ofiziala eskuratzea, tartean legezko eragozpen jakin bat baitzegoen, 1826ko urtarrilaren 16ko Latinitate eta Humanitateen Ikastetxeetarako Arautegi Orokorrak, bere 55. artikuluan, zera esaten zuelako<sup>69</sup>:

...podrá ponerse un Colegio de Humanidades en toda ciudad o villa que sea capital de Provincia o cabeza de Partido, siempre que no hubiera ya otro.

Baina Segura ez zen Hiriburu edo Barruti-burua. 1826ko abuztuan Aldun Nagusiari idatzi zion babes ofizialago baten premia azpimarratuz: bere *currículum*-a aurkeztu eta eskuzabalki egindako gastuak gogorarazten zizkion, gelak prestatzen egindakoak, noski, baina baita baliabide didaktikoetan Madrilen eta Parisen emanak ere<sup>70</sup>:

En esta atención y en la de que se ha empeñado el suplicante los tres años anteriores en unos gastos considerables, y aun superiores á sus facultades, para redificar su casa [*de Segura*] con este objeto tan interesante al público, y por traer de Madrid, Paris y otras partes muchos libros, mapas, globos, y demas efectos que son necesarios en un establecimiento de esta clase.

Bere babes-eskea egitean, Astigarraga ez zebilen bakarrik, bederatzi herrietako Udal eta Erretoreen 22 ziurtagiri bildu eta bidali zituen Batzarretarako Gipuzkoako Aldundira, 1826ko abuztuaren 17ko gutunarekin batera. Bost egun geroago erantzun zuen Aldundiak bere gomendioa eskainiz.

Madriletik baimena ez zen etorri berehala, baina Astigarragak 1829ko maiatzaren 1ean adierazi ahal izan zion Gipuzkoako Aldun Nagusiari, nola eman zion baimena Madrileko Irakaskuntza Publikoko Ikuskaritza Nagusiak, eta Eskolarentzat Probintziaren pasea eskatzen zuen, baimena legezketasun osoarekin egikaritu ahal izateko.

Ez dakigu noiz arte luzatu zen Humanitate-Eskola honen bizitza, zeren eta Seguran Agirreburualde apaizak lehiakide izan zitekeen Latin-Eskola (*Latinetxea*) eraiki baitzuen 1831n (gero, 1860.eko hamarkada arte behintzat lanean jardun zuena)<sup>71</sup>, eta dakigun bezala, gerra karlista ere berehala lehertu baitzen.

68. Benito shz 2003: 307.

69. Benito shz 2003: 307-tik jasotako testua.

70. Gao. JD IM 4-6-47.

71. Intxausti 2006a: 141-147.

Eskolagintzako ekimen guztiok emaitza motzak izan baldin bazituzten, oraindik aipatu ez ditudan Astigarragaren euskararen aldeko kezkek, gogo biziak eta argitalpenak onarpen praktikoz zabal eta iraunkorragoak izan zutela esan behar da hemen.

#### 4. EUSKARA ERE ESKOLARA

Astigarragak hizkuntzen ezagumendu irekia zuen, eta zekizkienak Euskal Herriko Eskoletan modu egitarautu batean hedatu nahi izan zituen. 1825eko urrian irekitako Segurako Eskolarako Probintziari bere babesa eta laguntza eskatu zizkionean (1826-08-17), han irakasten zituen gramatika gaztelaua, latina, frantsesa eta ingelesa aipatzen ditu<sup>72</sup>.

Horrekin batera, argi dago Astigarraga euskaltzale fina zela; beraren argitalpen eta eskuizkribu guztietan ageri da hori. Eta, besteak beste, euskal herrietako eskoletan elebitasuna, garaiko lege berrien arabera, legez ere ezargarria zela baieztatu zuen behin eta berriz. Horretan, arau ofizialen babesa euskarari ere eman zekiokoela uste zuen, eta nahi zuen. Haur euskaldunentzat eskola-estatus berria eskatu zuen, legeei iruzur egin gabe eman zitekeena<sup>73</sup>.

Euskararekiko ideia eta asmoak ez zitzaizkion jaio erabat bere bakardade isiletik, ezagutu zituen argitalpenen eta euskalarien harremanetatik baino. Guztien gainetik Larramendi-ren obra erraldoia eta ahalegina miretsi zituen Astigarragak. Horregatik, 1829an Gipuzkoako Batzarrari josulagunaren *De la Antigüedad y Universalidad del Bascuence* (Salamanca, 1728) liburua (Astigarragak berak oharrezaturik) argitaratu eskatu zion. Izendatutako Batzordeak aldeko iritzia eman zuen, hedapenerako iradokizunak ere eginez<sup>74</sup>:

...la Comisión... es de opinión, que la Junta invite a todos los pueblos y particulares de su distrito a subscribirse á una obra, que redunde tanto en realce de la Historia del pais bascongado, y que autorice al mismo tiempo á su Diputación, para que de acuerdo con el editor auxilie con las medidas que juzgue más oportunas su mas pronta, clara, sencilla, y mas cómoda edición, para que pueda así generalizarse en todo el distrito y Provincias adyacentes con mas facilidad.

Batzarrak ontzat eman zuen proposamena, nahiz eta ez dudana izan aukerarik gero argitalpen hori egin zen ala ez jakiteko.

72. Gao. JD IM 4-6-4.7.

73. Gao. JD IM 4-7-51. "De D. Luis de Astigarraga y Ugarte remitiendo dos egemplares del Diccionario Manual Bascongado y castellano dispuesto por él". 1826-01-16ko Erret Gutuna eta Eskoletako Arautegiaren 12. artikuluan oinarritzen du Astigarragak bere arrazoiketa: artikulua horren arabera, gaztelania eta latinaren artean erabili behar den elebitasuna era berean erabili daiteke euskara eta gainerako hizkuntzen artean, betiere haur euskaldunen lehen hizkuntzaz baliaturik, uste du Astigarragak

74. (1829): *Registro de las Juntas Generales que esta M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa ha celebrado en la N. y L. de Tolosa, este año de 1829*. Tolosa: Viuda de la Lama. 60.

Iraganeko Larramendirena ez ezik garaiko euskalari handien berririk ere bazuen Astigarranak (Juan Bta. Erro apologista edo F. Lecluse Pariseko katedradunarena, adibidez), eta Pablo Pedro Astarloa Madrilen ezagutu zuen (“a quien tube el honor de tratar en Madrid el año de 1803”, dio berak)<sup>75</sup>.

Harreman guztietatik jaiotako euskaltzaletasunak batez ere pedagogian eta eskolan aurkitu zuen, laster, bere bidea.

#### 4.1. Euskara eskola-tresna eta irakasgai

Euskararen aldeko bere jarrera arrazoitzen saiatu zen Astigarraga, berehala aurkeztuko dudan *Diccionario manual bascongado*-n bezala Erakundeei aurkeztu zizkien proposamenetan.

Liburu txiki honek bere baitan zituen asmo zabalak “A la juventud bascongada” zeritzan erdarazko hitzaurrean eman zituen egileak (ik. testua Eranskinetan). Geurea dugun ohizko ama-hizkuntzan eskolatu beharra aipatzen du lehenik; norberaren hizkuntza erabili ez ezik, ezagutu eta araututa erabili behar dela. Horretan, Espainiako Erret Akademiaren gaztelaniarako jokabide berak nahi zituen euskararako ere (hain zuzen, Erakunde haren testu bat jasoz aurkezten du Astigarragak bere arrazoiketa, hitzaurre horretan), eta garaiko gure egoera sozio-linguistikoa dakar agudioa osatzeko:

Así se explica la Real Academia Española en el prólogo de su gramática castellana; y yo añadiría que en ninguna provincia de España es tan necesario este estudio [*de la gramática de la lengua propia*] como en el país bascongado, donde el único idioma que se aprende en la juventud es el bascuence; y donde la lengua castellana es tan exótica como la francesa ó la de cualquiera otra nación extranjera, particularmente en algunas aldeas.

Azpmarratzekoa da arrazoiketa honen indarra: euskaldunak, euskalduna izateagatik, bere hizkuntzan eskolatua izan behar du, hizkuntza arautua ere izan dezan. Jatorrizko lehenengo arrazoia da hori. Ondoko testuan (1825eko apirilaren 28an Probintziari zuzendutako azalpena da) arrazoi pedagogikoa ez ezik norberaren jatorrizko hizkuntzaren biziraupenerako (kasu honetan euskararen mesederako) Eskolak egin dezakeen ekarpena azpmarratzen digu Astigarragak<sup>76</sup>:

Si un profesor ó maestro ha de enseñar el castellano, latín ú otro cualquier idioma á un Frances, Ingles, Aleman, ó Italiano; si ha de instruirlos en la aritmética y demás ciencias; **¿no es indispensable que sepa explicarse en la lengua que cada uno de ellos entienda?** Además de la ventaja que de este método ha de resultar para la más pronta y perfecta instrucción de la juventud bascongada en la gramática castellana y latina, en las lenguas extranjeras, en

75. Gao. JD IM 4-7-51: ib.

76. Gao. JD IM 4-7-51.

la aritmética y otras ciencias; **¿cuanto no contribuirá esta práctica para conservar el bascuence en su pureza y perfección [...]?**<sup>77</sup>.

Bistan da gaztelania irakasteko lanabes bezala ere ikusi zuela Astigarragak bere liburutxo. Larramendi laburtu hau, *Diccionario*-a alegia, herritarren eskuetan jartzean, herritar arruntek beren hizkuntzan -gaztelanian nahiz euskaran, oro har- eskolatzeko dituzten ezin eta eragozpenak salatzen ditu Astigarragak, eta ez du ahazten euskaldunak duen egoera zailagoa:

Como el único diccionario de que tengo noticia, es el del padre Larramendi, el cual consta de dos grandes tomos en folio, y no se encuentran ejemplares de él, por lo cual los pocos que hay cuestan trescientos ó cuatrocientos reales; estoy firmemente persuadido de que en dar á luz este pequeño manual, hago un importante servicio al país bascongado.

Gaztelania ikasteko balio zuen liburuak, noski, baina euskaldunak alfabetatzeko ere pentsatuta zegoen. Ikusi dugu horretaz zer dioen Astigarragak berak, eta gogoan hartzekoa da, gainera, liburu berean Luis Arozena legegizon eta Probintziako zentsore ofizialak dioena ere, autoreak esandakoetatik harago baitoa berau:

Esta obrita [...] bastará para que los Bascongados [=euskaldunak] á costa de muy poco trabajo puedan hablar su idioma con arreglo a los principios del arte, puesto que contiene y esplica todas las partes de la oración, así en Castellano como en Bascuence, con multitud de ejemplos en cada una, de manera que estos mismos ejemplos forman un compendio de diccionario en ambos idiomas, resultando de aquí otra ventaja; á saber, que los Españoles de otras Provincias en que es desconocida la lengua Bascongada, pueden también a beneficio de esta obrita aprender con muy poco trabajo, aunque no á hablar con perfección, a lo menos á darse á entender en bascuence [...].

Gero, ez dut uste, erbestekoek euskara asko ikasiko zutenik, baina euskaldunek bai erdararik; alabaina, euskal alfabetatzearen aldeko ahalegina hor dago, eta ez liburuak idatzi eta argitaratu emanaz bakarrik, berori garaiko eskolatan banatuz ere. Hainbatetan errepikatu ziren ondoko edizioak dira horren probarik onena, eta ikusiko dugu horretaz Luis semeak 1841ean Batzarrei idatzitakoa.

Eskoletako hizkuntza politikaz Larramendik zioen hura (*...hasta en las escuelas de niños se aprende a leer y escribir en castellano y nada en bascuence y aun con **errada conducta** se prohíbe a los muchachos hablar su lengua materna*) Astigarragak bere egiten du Aldundiari zuzendutako agirian, eta gero bere hitzaurrean jaso gabe geratu zen testuan honela zioen<sup>78</sup>:

Muy fundada me parece la opinión del sabio Larramendi que dice ser una **errada conducta** la de prohibir a los jóvenes bascongados el hablar en las

77. Liburuxkaren bigarren argitaraldia Probintziari aurkeztean, euskara *gordetze hori erabiltzearekin* ere lotzen du Astigarragak (GAO. JD IM 4-7-5).

78. Gao. JD IM 4-7-51. Agiri honen lehen albistea P. J. Aranburu-ri zor diot. Testua luze eta landua da, eta agiri-sorta oso bat osatzen duite Luis aita-semeek *Diccionario* honen inguruan idatzitakoek.

escuelas su lengua nativa; pues la experiencia de veinte años en que me he ejercitado en la educación de mis hijos y de otros muchos jóvenes y las dificultades que actualmente estoy pasando en mi colegio, para enseñar á los niños de este país cualesquiera ciencias y particularmente la gramática castellana, latina ó de otras lenguas, han acabado de convencerme de que todo debe explicárseles primero en bascuence, poniéndoles oportunos egemplos y comparaciones en ambas lenguas; si ya de antes no comprenden suficientemente la castellana, aunque en todo lo demás que entiendan se les hable siempre en esta última lengua.

Horrela, alde batetik euskararen eskolako presentzia defendatzen zuen Astigarragak, pedagogia eraginkor baten izenean, baina une berean –garaiko testuinguruan, noski– beste hizkuntzak eta zientziak ikasteko eskubidea ere.

Larramendik sistemari egiten zizkion salakuntzak eta proposatzen zizkion irtenbideak nola zituen gogoan gure Astigarragak? Esan beharra dago bihotza jarri zuela Euskal Herriarekiko bere sentipenean. Gipuzkoako Probintziari egindako gutun batean, Larramendiren ideiak azaldu ondoren, barkatzeko esaten du gaitik hain urrun eta kanpo joana, horretan bere burua honela zurituz<sup>79</sup>:

...siempre que vuelvo a leer algún capítulo de nuestro dignísimo y sabio paisano [*Larramendi*], me electrizo de tal suerte, que á veces no puedo contener mis lágrimas, mezcladas de gozo y amargura, considerando por una parte su laboriosidad, su celo patriótico y las excelencias del Bascuence; y por otra parte el poco aprecio que se ha hecho de unas obras tan interesantes [...].

Zalantzarik gabe, Larramendiren gogo bero berarekin lan egin zuen segurarrak ere, eskura izan zituen lanabesak medio eta berariaz sortutako baliabideak erabiliz<sup>80</sup>. Horietako bat izan zen *Diccionario* delakoa.

## 4.2. Diccionario Manual Bascongado (1825...)

1825ean, bizialdi luzeko liburutxo bat eman zuen argitara Tolosan pedagogo euskaltzaleak, *Diccionario manual bascongado y castellano* zeritzana<sup>81</sup>.

---

79. Oñatiko Protokolo-Artxiboa: 2, 2702.

80. Hegoaldeko Eskolari buruzko albisteak biltzean, ez nuke ahaztu nahi erabat Iparraldea. Zilegi bekit, hortaz, hemen aipu bibliografiko xume bat uztea, gutxienez: Hourmat, P. (1973): *L'Enseignement Primaire dans les Basses-Pyrénées au temps de la monarchie constitutionnelle (1815-1848)*. Anglet: ipso. Ipar Euskal Herriaz ezer handirik ez badu ere interesgarria gertatzen da liburua, Iparraldeko ahaleginekin hemengoak alderatzeko.

81. Barne-azalean zera dio: Diccionario manual / bascongado y castellano, / y elementos de gramática. / Para el uso de la juventud de la M. N. y M. L. / Provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte / de la Doctrina Cristiana en ambos idiomas. / Por D. Luis de Astigarraga y Ugarte, / miembro de la Sociedad de Instrucción de París, / y Director de la casa de educación ó Colegio / establecido en esta Ciudad con aprobación / de su M. I. Ayuntamiento. / Necesaria pueris, jucunda senibus. Quintil. / Con licencia. / En San Sebastián, / En la Imprenta de Ignacio Ramón Baroja. / Año de 1825.

Euskal liburuek inoiz gutxitan ezagutu duten arrakasta izan zuen liburu honek berehala.

Luis Astigarraga Izquierdo semeari eta I. López Mendizabal-i sinetsi nahi badiegu, ale dezenteko argitaraldiak izan ohi ziren liburu honenak (adibidez, 1840ko argitaraldia 3.000 alekoa izan zen). Horren lekuko hurbila semeak Gasteiztik Gipuzkoako Probintziari zuzendutako gutuna da, 1841eko abuztuaren 22an idatzitakoa, une hartako argitalpen-egoera eta aurreko albisteak gogorara-ziz<sup>82</sup>:

D. Luis de Astigarraga é Izquierdo hace presente a V. S. con el debido respeto. que en las Juntas Generales del año 1840 se acordó autorizar a V. S. para adquirir a costa de la Provincia los ejemplares que le pareciese de la obra escrita por mi difunto padre titulada, *Diccionario manual Bascongado y Castellano, tercera edición corregida y aumentada considerablemente, etc.*, cuya impresión de tres mil ejemplares contrató dicho mi señor padre con la Sra. Viuda de Mendizabal de Tolosa, con la condición de que de los tres mil ejemplares, los seiscientos serían para el autor, y de que cada ejemplar se vendería al precio de 4 1/2rs. Y hallándose aun en poder de dicha Sra. Viuda de Mendizabal 2.800 ejemplares, de los cuales pertenecen quinientos al exponente,

A V. S. rendidamente suplica se sirva disponer se adquieran dichos ejemplares a costa de la provincia para distribuirlos á sus pueblos, a fin de llevar a efecto dicho acuerdo de las Juntas Generales del año ppdo; para que la laboriosidad de mi difunto padre en beneficio de la juventud del pais no quede sin recompensa. [...].

Hogeita zazpi argitaraldi kontatu ahal izan dizkiot *Hiztegi* honi, eta mende beteko bizitza izan zuen, gutxienez (1825-1933). Tolosa, Donostia eta Bergaran izan zen argitara emana, garaiko euskal argitaletxe ezagunetan (La Lama, Baroja, Mendizabal, López, eta abarretan). Hona, bada, edizio horien albiste osoa:

---

82. Gao. JD IM 4-7-51: "De D. Luis de Astigarraga de Segura presentando su Diccionario Manual Vascongado y Castellano".



**Diccionario Manual Bascongado**  
**Argitaraldiak (1825-1933)**

Zenbatg.	Urtea	Lekua	Argitaletxea
1	1825	Tolosa	J. M. de La Lama
2	1825	Donostia	J. R. Baroja
3	1827	Tolosa	La Lama Alarguna
4	1839	Tolosa	La Lama Alarguna
5	1840	Tolosa	La Lama Alarguna
6	1848	Tolosa	La Lama Alarguna
7	1855	Tolosa	La Lama Alarguna
8	1858	Tolosa	P. Gurrutxaga
9	1861	Tolosa	Mendizabal Alarguna
10	1861	Tolosa	La Lama Alarguna
11	1865	Tolosa	P. Gurrutxaga
12	1866	Tolosa	Mendizabal Alarguna
13	1866	Bergara	J. M. Matxain
14	1870	Tolosa	P. Gurrutxaga
15	1873	Tolosa	Mendizabal Alarguna
16	1876	Tolosa	P. Gurrutxaga
17	1877	Tolosa	Mendizabal Alarguna
18	1881	Tolosa	P. Gurrutxaga
19	1883	Tolosa	Eusebio López
20	1884	Tolosa	Eusebio López
21	1887	Tolosa	Eusebio López
22	1889	Tolosa	P. Gurrutxaga
23	1892	Bergara	J. López
24	1911	Tolosa	Eusebio López
25	1916	Tolosa	E. Mendizabal
26	1920	Tolosa	E López
27	1933	Tolosa	López-Mendizabal

ITURRIAK: Allende-Salazar, Sorarrain, Vinson, J. Bilbao; Urkixo  
Liburutegia

Edizio hauek ez ziren izan beti berdinak, eta ez zen gertatu hori egilearen borondatearen kontra. Aitzitik, lehen unetik bertatik aurreikusi zuen Astigarragak liburua hobetuz eta aberastuz joatearena, izan ere eskuartean zituen idazlan elebidunetan bertan baitzegoen gogo hori. Osatuz, euskara hobetu eta bikaindu baizik ez da egingo, dio<sup>83</sup>:

...si se cumplen los deseos que en la introducción de mi obrita manifiesto de imprimir y publicar los diálogos, fábulas, modelos de cartas y tratado de aritmética que tengo trabajados en ambos idiomas, y si se le da al diccionario manual toda la extensión de que es susceptible.

Beraz, garrantziko bi datu ditugu: Eskolarako hainbat langai elebidun prestatuta daukala eta esku-hiztegi txiki hori hazkorra izan daitekeela jaiotzatik bertatik.

Astigarragaren jatorrizko hitzetan deskriba daiteke hobekien liburuaren bidez lortu nahi zuen eskola-elebitasuna:

...hagan los bascongados en lo sucesivo el aprecio y uso que es debido de nuestra excelente é inmortal lengua, y se apliquen los jóvenes á instruirse á un tiempo en la gramática bascongada y castellana, imponiéndose en ambas **paralela y compartidamente**, como respecto a la latina y castellana se ordena en el artículo 12 de la Real Cédula y Reglamento general de Escuelas de latinidad y Colegio de Humanidades de 16 de Enero de 1826.

Aurrera baino lehen, azpimarratzekoa da euskarazko eskola-langaien paratzeak gure egunak arteko buruhauste moderno bat sortu ziola Astigarragari, terminologiarena: adibidez, gramatika- edo aritmetika-terminoak asmatu behar izan zituen ezer idatzi ahal izateko. Eranskinetan bildu dut, gramatikaren alorreko hiztegi hori.

Argitaraldi berriei dagokienez, egilearen gogoari jarraiki ondoko argitaratzaile bakoitzak zuzendu, osatu eta birmoldatu egin zuen liburua. Jada 1827ko argitaraldia guztiz berritu eta osatua agertu zen; baina aldakuntzarik handienak XX. mendeko edizioetan agertu ziren, I. López-Mendizabalen eskutik, testua Euskaltzaindiak emandako ortografia berrira egokitzean. López-Mendizabal-ek dioen 19. argitaraldia ematean ondoko ohar hau eman zuen:

19<sup>a</sup>. edicion, cuidadosamente corregida con arreglo a la ortografía de la Academia de la Lengua Vasca, y aumentada considerablemente con una tabla y ejercicios muy útiles...

Tamainaz ere gauza bera gertatu zen gramatika-hiztegi honekin: lehen argitaraldiko 48 orrialdeak 112 izatera iritsi ziren 1916koan. Nik dakidanez, garaiko euskal eskola-libururik ezagunena, eta alde handiarekin zabalduena, izatera heldu zen Astigarragaren hau; XIX-XX. mendeetako hamarkada haietan euskararen

---

83. Gao. JD IM 4-7-51. "Expediente relativo al Diccionario Manual Vascongado escrito y publicado por don Luis Astigarraga y Ugarte" (lehen gutunean).

eskoletako presentzia eta erabilera gure artean nola gertatu zen jakiteko test bat izango litzateke liburuxka honen historia.

Euskara bakarrari lagundu nahian, euskalkien ezberdintasunekin egin zuen topo eskola-liburu honek ere, eta Gipuzkoarako, eta gipuzkeraz, egindako liburua Bizkairako ere egokitu behar izan zen. Horregatik, 1877ak bizkaieraz moldatua datorrela adierazten du: "...para uso de la juventud de Vizcaya... por E. A. y B.", dio oharrak. Garaiko premien eta liburuaren estimua nabarmentzen du ekimen honek ere.

Badirudi euskal argitaletxeek euskaldun guztien ondare komun bezala hartu zituzten Astigarraga Ugarteren liburua, denena zen eta normahik eman zezakeen argitaratara, eta bakoitzak bere gisara moldatu eta emendatua eman ere. Eskola-liburu batekin beharbada sekula tamaina horretan gertatu ez zaigun zerbait, esango nuke.

*Diccionario Manual* hau herentzia eta erronka izan zen Euskal Herriko eskolagintza erdaldunak urratsik erabakigarrienak eman zituen garaietan (1825-1933).

## 5. SOLAS-ONDOKOA

Esandako guztiok Astigarraga Ugartek nolako nortasuna zuen erakutsi digute. Labur dezadan ikusi dugun hori.

Herri txiki baina eskualde-buru bateko semea zen Astigarraga, familia "onekoa", sorterrian agintea eskuratu eta erabiltzen jakin zuena, Probintziara bere itzala luzatuz, eta Madrilen ere Gobernu-etxeetako pasabideetan ibiltzen asmatu zuena.

Ekonomia bezala kultura ere interesatu zitzaion. Madrilen egin zituen ikasketak, eta Gorteko kale-plaza eta jauregiak ezagutzen zituen, hango jakitunak ahaztu gabe. Gaztetan eta bere heldutasunean Madril eta Parisen ibili ahal izan zen, laster Administrazioako kargutan ere ardura zuela.

Kanpoko ibilerak gorabehera, sorterria beti bere begira-puntuan izan zuen: Segura, Gipuzkoa, Euskal Herria. Aizkorpeko bailararen egoera sozio-ekonomikoa zinez arduraturik zeukan gizona, eta bailara horren garapen ekonomikorako, aspertzeke, ekinbide berriak proposatu zituen eta proiektu ausartak aurkeztu. Probintziako herrietan ez ezik Hiriburuetan ere bizi izandakoa da Luis Astigarraga (hiruretan: Bilbo, Donostia eta Gasteizen).

Sormen handikoa ageri zaigu, ez zen geldi egotekoa. Erakundeetara eraman zituen proposamenetan hori da sumatzen dena, eta era berean beraren ekimen politikoetan (Seguran, Goierriin, Probintzian). Pertsonalki arriskatzen ere jakin zuen, benetan sinesten zituen asmoetan, eskolagintzan batez ere.

Aurrera-zalea zen, eta Frantzia aurkitu zuen Espainiarako eta Euskal Herrirako eredu politiko-ekonomikoa. Euskal "argizatuen" kezkek berekin zituela, Espainiako

Erregimen Zaharraren krisian (1808), frantsesten artean lerrokatu zen, Jose I.aren Administrazioaren barnean, alegia. Eta, azkenik, 1820tik aurrera proiektu politiko liberalaren aldekoa gertatu zen, liberalismo moderatuaren arrastoan.

Modernotasun gogo horri bidea emateko, Irakaskuntza hobe baten premia erakutsi nahi izan zuen, Pestalozzi eta Lancaster pedagogoen metodoak gure artera ekarri, hemen zabaldu eta aplikatuz (1807, 1820). Aitzindaria izan zen horretan.

Gipuzkoako Erakundeetan aurkeztu zituen egitasmoek aurrerabide handirik izan ez zuten arren, berak bere kabuz sustatu (Bilbo) eta abian jarritako Eskolek (Donostia, Segura) erakusten digute nolako fedea zuen Irakaskuntzak izan zezakeen gizartearen eraldakuntzarako indar aldagarrian.

Euskararen egunekoa eta etorkizuna bi gisatan lagundu nahi izan zuen: bate-tik, aldeko ideiak zabaldu eta eskola-liburua argitaratuz, eta bestetik, pedagogia eta eskolagintza berrietan euskarari ere zegokion lekua eskainiz.

Astigarragaren ustez, pedagogiaren ezinbesteko jatorrasun- eta modernotasun-baldintza zen euskara herri euskaldunetako eskoletara eramatea. Euskara ez zuen baztertu nahi izan kultur ekimen modernoetatik, alderantziz baizik.

Nola defini dezakegu Astigarragaren euskaltzaletasuna? Haren hainbat tes-tutan *euskaltzaletasun pedagogikoa* ageri da: euskarak jakite berrietara (gaztelania eta beste hizkuntzetara ere bai) iristeko lehen tresna izan behar du Eskolan. Hori da Astigarragaren baieztapenik irmoena.

Baina *euskaltzaletasun beregaina* ere badu: gainerako hizkuntzei aitortzen zitzaien duintasun arautua opa dio euskarari ere, propioki berari dagokiona. Hizkuntza bakoitzak ahalegindu behar du bere *corpus*-a araez finkatzen, finkatu eta eskola-bidez hedatzen. Sistema linguistiko bakoitzaren autonomia jatorra opa dio euskarari. Ideia hauetan Larramendi eta Kardaberaz jarraitzailea da, noski.

Astigarragak, bidezkotzat ez ezik *legezkotzat* ere eduki zuen Eskolaren euskalduntze/elebiduntzeko bere proiektua, eta euskararen aldeko ahalegin hori, garaiko testuinguru ofizialean gara zitekeela uste izan zuen.

Euskaltzaletasun abertzaletik urrun dago Astigarraga, garaiko gizona zelako eta haren ideologia politikoak Euskal Herriari eta hizkuntzari opa zien etorkizun hobia Estatu liberal berriaren proiektuan barruntatu uste zuelako, inondik ere.

Erakutsi zuen nortasun pertsonal eta sozialagatik, euskararen eremuan euskal "argiztatu" isilarazi batzuen luzapena izan zen Astigarraga (Zalduntxoeren arteko euskaltzale fermuena, esan nahi dut), eta ondoko belaun liberalen aurretik, azpimarratzekoa da erakutsitako hizkuntzarekiko ardura hori, lehen uneko euskal liberalismoaren orduetan.

Artean (1807-1833), karlistak jaiotzeko zeuden, Moyano ere bai: horregatik ere, Astigarragak ez zituen aurreikusi ahal izan gainera zetozkigun arrisku larriak.

## BIBLIOGRAFIA

- (1821-1822): *El Despertador*. Bilbo: Pedro Miguel Alcover. (1821eko irailaren 10etik urriaren 27ra eta 1822ko otsailaren 15etik martxoaren 8ra arte argitaratua. Hamazazpi zenbaki).
- (1821): *El Patriota Luminoso*. Bilbo: Pedro Miguel Alcover. (1821eko urriaren 31tik 1821eko abenduaren 1era argitaratua. Hamar zenbaki).
- (1829): *Registro de las Juntas Generales... de Guipúzcoa*. Tolosa: Viuda de la Lama. (Descargo de la Comisión sobre reimpresión de "De la antigüedad...", de Larramendi, propuesta presentada por L. Astigarraga). 59-61.
- Achón Insausti, J. A. (1998): *Historia de las vías de comunicación en Gipuzkoa*. II. *Edad Moderna*. San Sebastián: Diputación Foral.
- Aginagalde, B. (2003): "Segurako handikiak: jauregiak eta leinuak". In: shz 2003: 205-246.
- Artola, M. (1999): *La España de Fernando VII*. Madrid: Espasa-Calpe.
- Astigarraga Ugarte, L. (1821): *Memoria sobre el proyecto y la posibilidad de comunicar el Mar Océano con el Mediterráneo / por medio de un canal*. Bilbao: Imprenta de D. Pedro Antonio de Apraiz.
- Astigarraga Ugarte, L. (1825): *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática*. San Sebastián: Imprenta de Ignacio Ramón Baroja.
- Benito Pascual, J. de (1994): *La enseñanza de primeras letras en Gipuzkoa (1800-1825)*. Donostia-San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia/Dip. Foral de Gipuzkoa.
- Benito Pascual, J. de (2003): "Irakaskuntza publikoaren sorrera Seguran". In: Intxausti Shz 2003: 289-308.
- Dávila Balsera, P. (1993): *La profesión del magisterio en el País Vasco, 1857-1930*. Donostia: Universidad del País Vasco.
- Dávila Balsera, P. (1995): *La política educativa y la enseñanza pública en el País Vasco (1860-1930)*. Donostia-San Sebastián: Ibaeta Pedagogía.
- Dávila Balsera, P. (1997): *Lengua, escuela y cultura*. Bilbo: Universidad del País Vasco.
- Fernández Sebastián, J. (1989): "Orígenes de la Prensa. Periodismo, política y sociedad". In: (1989): *Bizkaia. 1789-1814*. Bilbao: Dip. Foral de Bizkaia.
- Fernández Sebastián, J. (2002): "Periodismo, Liberalismo y Fuerismo". In: Rubio/Pablo 2002: 335-372.
- Garro, J. A. (2003a): "Segurako seme-alaba ospetsuak". In: shz 2003: 247-265.
- Garro, J. A. (2003b): "Segurako Alkate(s)ak". In: shz 2003: 591-603.
- Gontard, M. (1959) : *L'Enseignement Primaire en France, de la Révolution à la loi Guizot (1798-1833). Des petites écoles de la monarchie d'ancien régime aux écoles primaires de la monarchie bourgeoise*. Paris. Les Belles Lettres.
- Hourmat, P. (1973): *L'Enseignement Primaire dans les Basses-Pyrénées au temps de la monarchie constitutionnelle. 1815-1848*. Anglet: ipso.
- Intxausti, J. (ed.) (2003a): *Segura historian zehar*. Segura: Segurako Udala. (Laburtuz: shz).
- Intxausti, J. (2003b): "Segurako eta segurarren euskararen aldeko jarrera eta lanak". In: Intxausti 2003a [shz]: 547-548.

Intxausti, Joseba: Luis Astigarraga Ugarte, politikari eta pedagogo euskaltzalea (Segura, 1767 ...

Intxausti, J. (2006a): *Segurarren historia*. Segura: Segurako Udala.

Intxausti, J. (2006b): *Segura en su pasado y camino*. Segura: Segurako Udala.

Intxausti, J. (ed.) (2006c): *Segura en su arte y monumentos*. Segura: Segurako Udala.

Intxausti, J. (2006d): "Luis Astigarraga (1767-c. 1840)". In: Intxausti 2006a: 282-291.

Intxausti, J. (s.d.): "Segurako Ordenantza Orokorrak (1723)". In: *Tokiko Historia. IX. Jardunaldiak. Tokiko Foruetatik udal Ordenantzetara Euskal Herrian. Vitoria- Gasteiz 2006-11-29/30*. Argitaratzeko bidean.

Lasa, J. I. et al. (1968): *Sobre la Enseñanza Primaria en el País Vasco*. Donostia: Auñamendi.

Rubio Pobes, C.; Pablo, S. de (2002): *Los liberales. Fuerismo y liberalismo en el País Vasco (1808-1876)*. Vitoria-Gasteiz: Fundación Sancho el Sabio.

Ruiz de Gauna, A. (1991): *Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos xix y xx*. Donostia/Vitoria-Gasteiz: Eusko Ikaskuntza/Eusko Jaurlaritzia.

Santana, A. (2006): "Guía de las casas y palacios de Segura". In: Intxausti (ed.) 2006c: 74, 134-135.

### **Laburdurak**

deha Donostiako Elizbarrutiko Histori Agiritegia.

duao Donostiako Udal Agiritegi Orokorra.

gao Gipuzkoako Agiritegi Orokorra.

geha Gasteizko Elizbarrutiko Histori Agiritegia

shz *Segura historian zehar* (Intxausti 2003).

sua Segurako Udal Agiritegia.

## ERANSKINAK

### I. Eranskina

#### *Memoria sobre el proyecto y la posibilidad de comunicar el Mar Océano con el Mediterráneo (1821)*

##### [Aurkibidea]

- CAP. I. Reflexiones generales acerca de la importancia de los caminos y canales para la prosperidad de un Reyno.
- CAP. II. Extracto de la representación dirigida al Ministerio por el Comandante de Marina de San Sebastián sobre el restablecimiento del antiguo camino de S. Adrian; y real orden expedida en su consecuencia, para que las Provincias de Guipuzcoa y Alaba informasen sobre el mismo asunto.
- CAP. III. Resumen del informe evacuado por la Diputación de Guipuzcoa, y de varias representaciones hechas por D. Luis Astigarraga y Ugarte Regidor de la Villa de Segura; y Real orden expedida en su consecuencia mandando restablecer el camino de S. Adrian.
- CAP. IV. Disposiciones tomadas por los pueblos de la Parzonería general, y por las Provincias de Alava y Guipuzcoa congregadas en juntas generales, para tratar del restablecimiento del camino de S. Adrian; en cumplimiento de la precedente Real orden.
- CAP. V. Reconocimiento del terreno desde Beasain á Cegama, y de toda la cordillera de S. Adrian por el Teniente Coronel de Yngenieros D. Carlos Lemaury en compañía de D. Fernando de Izquierdo, y de D. Luis de Astigarraga, con el fin de fijar la dirección del camino proyectado, y levantar el plano necesario para su execución.
- CAP. VI. Interesante hallazgo del punto de vertientes al mar Oceano y Mediterraneo, ignorado hasta esta época, como único que presenta la naturaleza para la construccion de un canal que comunique á ambos mares; y posibilidad de este gran proyecto sin tantas dificultades como el canal de Murcia, principiando en la inmediacion de S. Sebastian, y siguiendo por Hernani, Andoain, Tolosa, Villafranca, Beasain, Segura, y Cegama en Guipuzcoa, y por algunos pueblos de Navarra hasta unirse con el canal de Tudela.
- CAP. VII. Descripción del camino proyectado por la falda de Otsaurte; su longitud y ventajas comparadas con los defectos del actual camino de Salinas; y cálculo del coste que tendrá el nuevo trozo que se intenta construir por aquel punto.
- Cap. VIII. Cartas de las Diputaciones de Guipuzcoa, Alava y Navarra; del Virrey de Pamplona, del Corregidor y Comisionado de la Provincia de Guipuzcoa, y de otras varias autoridades y corporaciones; á D. Ramon María de Zurbano y D. Luis de Astigarraga como á comisionados de la Parzonería General de Guipuzcoa y Alava acerca de la descripción de los dos proyectos contenidos en esta memoria.
- CAP. IX. Importancia de que se realicen estos dos proyectos con la posible brevedad, y medios que podrian adoptarse para ello, á imitación de Durango, Bermeo, y otros pueblos de Vizcaya y Castilla.

## II. Eranskina

### *Diccionario manual bascongado (1825)*

#### A LA JUVENTUD BASCONGADA

Mis amados paisanos: si el uso del habla es una prerrogativa singular con que el Criador enriqueció al hombre sobre todas las criaturas, dotándole de una alma racional é inmortal, si el lenguaje es la principal y la mas apreciable facultad que nos concedió para comunicarnos mutuamente nuestras ideas, nuestros conocimientos, nuestros afectos, acciones y pasiones; si este es el órgano con que alabamos la omnipotencia, la grandeza, las misericordias y maravillas del Señor; ¿quien podrá dudar ni un momento que debemos poner el mayor esmero en instruirnos en la gramática general ó ciencia de la palabra, y en el arte y gramática particular de la lengua ó idioma que diariamente hemos de hablar y escribir? «Deus ille princeps, parens rerum, fabricatorque mundi, nullo magis hominem separavit á ceteris... animalibus, quam dicendi facultate... Rationem igitur nobis precipuam dedit. *Quint. instit. orat.*

Pocos habrá (dice la Academia Española) que nieguen la utilidad de la gramática si se considera como medio para aprender alguna lengua estraña: pero muchos dudarán que es necesaria para la propia, pareciéndoles que basta el uso.

No lo pensaban así ni los griegos ni los romanos; pues sin embargo de que para ellos eran tan comunes la lengua griega y latina, como para nosotros la castellana, tenían gramáticas y escuelas para estudiarlas.

Sería, pues, conveniente que los padres ó maestros instruyesen con tiempo a los niños en la gramática de su lengua. Los que no hubiesen de seguir la carrera de las letras, se ilustrarian al menos en esta parte de ellas, y hallarian en el ejercicio de sus empleos, en el gobierno de sus haciendas y en el trato civil, las ventajas que tienen sobre otros los que se esplican correctamente de palabra y por escrito.

No hay edad, estado ó profesion alguna en que no sea conveniente la gramática. Quintiliano dice que es necesaria a los niños y agradable a los viejos, etc.

Así se esplica la Real Academia Española en el prólogo de su gramática castellana; y yo añadiría que en ninguna provincia de España es tan necesario este estudio como en el pais bascongado, donde el único idioma que se aprende en la juventud es el bascuence; y donde la lengua castellana es tan exótica como la francesa ó la de otra cualquiera nación estrangera, particularmente en algunas aldeas.

A la verdad es un descuido ó abandono vergonzoso el que se nota en todas las provincias de la península; pues muchísimas personas que ejercen varias profesiones y oficios públicos ignoran generalmente los mas esenciales rudimentos de la gramática castellana, que un niño de diez ó doce años de edad aprende en tres ó cuatro meses; por cuya crasa ignorancia incurren, así en su conversación, como en sus escritos, en los más groseros errores.

Para facilitar pues á la juventud bascongada el estudio de la gramática castellana, he creído muy conveniente coordinar y publicar este diccionario manual, poniendo al principio de él algunas observaciones sobre ambas lenguas, las conjugaciones de los verbos auxiliares *haber* y *ser*, *izan*, *izandu*, y las definiciones ó esplicacion de cada una de las partes de la oración; con cuyo auxilio, al paso que los jóvenes bascongados aprendan de memoria la significacion y correspondencia de las voces de uno y otro idioma, se instruirán en lo más esencial de la gramática castellana.

Como el único diccionario de que tengo noticia es el del padre Larramendi, el cual consta de dos grandes tomos en folio, y no se encuentran ejemplares de él, por lo cual



los pocos que hay cuestan trescientos ó cuatrocientos reales; estoy firmemente persuadido de que en dar á luz este pequeño manual, hago un importante servicio al pais bascongado.

Si mis constantes deseos de ser útil al público consiguen en este corto ensayo algún resultado feliz, continuaré trabajando con más ahinco y esmero en todo lo que pueda contribuir a la educación de la juventud bascongada, y daré mayor estension á este diccionario, igualmente que á la combinación de la gramática bascongada con la castellana, y con las de otros idiomas extranjeros, manifestando al mismo tiempo á mis paisanos las escelencias y filosofía del bascuence comparado con aquellos.

Tambien podrán imprimirse algunas fábulas, modelos de cartas y diálogos que tengo trabajados en ambos idiomas, los cuales servirán de grande auxilio á los bascongados para ir aprendiendo bien el castellano y ejercitarse en él.

### III. Eranskina

#### *Diccionario manual bascongado (1825)*

[ZENTSOREAREN OHARRA]

*CENSURA del Licenciado D. Luis Arocena, Abogado de los Reales Consejos, y Consultor de esta M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa.*

He visto por orden de V. S. el librito intitulado «Diccionario Manual Bascongado y Castellano, y elementos de gramática para el uso de la juventud de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa». Su autor D. Luis Astigarraga, y Ugarte.

Esta obrita verdaderamente elemental tiene la ventaja de reunir en un pequeño volumen las primeras nociones de la gramática Bascongada y Castellana, y un compendio de diccionario de voces Bascongadas las mas usuales con sus equivalentes en Castellano: ella bastará para que los bascongados á costa de muy poco trabajo con la lectura de muy pocas páginas puedan hablar su idioma con arreglo a los principios del arte, puesto que contiene y esplica todas las partes de la oración, así en Castellano como en Bascuence, con multitud de ejemplos en cada una, de manera que estos mismos ejemplos forman un compendio de diccionario en ambos idiomas, resultando de aquí otra ventaja; á saber, que los Españoles de otras Provincias en que es desconocida la lengua Bascongada, pueden tambien á beneficio de esta obrita aprender con muy poco trabajo, aunque no á hablar con perfección, á lo menos á darse á entender en bascuence sobre aquellas cosas mas comunes en el trato de la sociedad humana. Es pues indudable la utilidad de esta obrita, y como no contiene cosa alguna que se oponga á la Religion, ni á las buenas costumbres, no hallo motivo alguno que pueda impedir su impresión. Azcoitia 1.º de Marzo de 1825. = D. Luis Arocena. = Señor Corregidor de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa.

Unase la precedente censura al diccionario á que hace referencia, rubríquense sus ojos por el presente Escribano, é imprímase con conveniente corrección, etc. El Sr. D. Rafael Aynat y Sala, del Consejo de S. M., su Ministro Honorario de la Real Chancillería de Granada, y Corregidor de esta M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa lo mandó y firmó en la Villa de Azcoitia á 5 de Marzo de 1825.= Rafael Aynat = Ante mí Ignacio José de Lecuona.

## IV. Eranskina

### *Diccionario manual bascongado* (1825)

#### EUSKARAZKO GRAMATIKA- ETA DOTRINA-TERMINOLOGIA

OHARRA. Esan bezala, argitalpen honen edizioetan bi epe bereizi behar dira, 1825etik 1911ra doana, lehenengo, eta 1911tik 1933ra artekoa. Lehenengo epeko edizioek eutsi egin zioten hasierako terminologiari, baina 1911tik aurrera aldakuntza larriagoak izan zituen liburua: titulua berri zitaion baina terminologia aldatu gabe (1911), ondoren terminologia aldatu zen eta Euskaltzaindiaren ortografia onartu (1920). Ohar honetan, gaztelaniako terminologiaren arabera ordenatu dut hemengo zerrenda.

<b>Gaztelania</b>	<b>1825eko argitaraldia</b>	<b>1933ko argitaraldia</b>
<i>Adverbio:</i> Adverbios de lugar, adverbios de tiempo, adverbios de modo adverbios de otras clases.	Adverbioa (6, 32-34): Toquico adverbioak, demboraco adverbioak, moduzco adverbioak, beste batuneco adverbioak	Mallagiña* (7, 32, 33): Toki-mallagiñak*, Asti-mallagiñak*. Aldi-mallagiñak
<i>Artículo</i>	Osichecá (7-9)	Mugalea, mugitza (7, 8)
<i>Conjunción</i>	Itsaskida (6, 38-41)	Alkargaya (7, 38)
<i>Declinables</i>	Maillegaiac (7)	Mallegayac* (8)
<i>Indeclinables</i>	Maillezgaiac (7)	Mallezgayac* (8)
<i>Interjección</i>	Ezartea (6, 41-42)	Zentzun-itza, Sentzun-itza (7, 8, 41)
<i>Oración, Partes de la</i>	Esaldiaren parteac (6-7)	Saldiaren zatiak (7)
<i>Nombre</i>	Icena (6)	Izena (7)
<i>Nombre adjetivo</i>	Icen elcarra (22-25)	Izen elkarra (21)
<i>Nombre sustantivo</i>	Icen egopearra (9-21)	Izena, izenak (7, 10)
<i>Numerales ordinales</i>	Cembatar garrenac (24)	Zenbakargarrenak (23)
<i>Participio</i>	Partartcea (6)	Aditz-izena (7)
<i>Posposiciones</i>	Ipimpitceac (6)	Atzizkiak (33-34)
<i>Preposición</i>	Leipintza (6, 34-37) <i>Euscarac ipimpetzeac</i> [=posposiciones] <i>daucan</i> <i>bezala, gaztelaniac usatcen</i> <i>ditu leipintzac.</i>	Aurretitzak* (7, 33, 34): Euskerak atzizkiak dituen bezala, gaztelaniak ditu aurretitzak (33-34)

<b>Gaztelania</b>	<b>1825eko argitaraldia</b>	<b>1933ko argitaraldia</b>
<i>Pronombre</i>	Orticena (6, 25-27)	Izenordea (7, 25)
<i>Pronombres o adjetivos demostrativos</i>	Orticen edo icen elcar icurastecoac (=iracustecoac?) (26)	Izenorde agerkayak (25)
<i>Pronombre o adjetivos numerales</i>	Orticen edo ice[n] elcar cembatetarrac (26)	Ortizten edo izen elkar zenbatetarrak* (26)
<i>Pronombres personales</i>	Orticen izapecoac edo personarenac (25)	Notin-izenordeak (25)
<i>Pronombres o adjetivos posesivos</i>	Orticen edo icen elcar mempecoac (26)	Jabetasun izenordeak (25)
<i>Pronombres relativos</i>	Orticen beaquideac (26)	Bearkide izenordeak (25)
<i>Verbo</i>	Erasquitzá (6, 28-31)	Aditza (7, 27)

\* 1933ko argitaraldian tiletarekin edo azentuarekin emandako -l- edo -r-, hemen -ll- eta -rr- hizki bikoitzekin transkribatu ditut.

**CRISTAUEN JAQUIN-BEARRA: DOCTRINA CRISTINA (1825: 42-48. or.)**

Credoa: El credo (43-44. or.).

Pater Nosterra: El padre nuestro (44-45. or.).

Salvea: La Salve (45-46. or.).

Mandamentuak: Mandamientos. *Jaungoicoaren legueco mandamentuac dirade amar. Lenengo irurac pertenecitcen zaizca Jaungoicoaren onrari, eta beste zazpirac progimoaren provechuari. Los mandamientos de la ley de Dios son diez. Los tres primeros pertenecen al honor de Dios, los otros siete al provecho del prógimo* (46. or.).

[Eliza: Iglesia]. *Ama Eliza Santaren mandamentuac dirade bost. Los Mandamientos de la Santa Madre Iglesia son cinco* (47. or.). *Ama Eliza Santaren Sacramentuak dirade zazpi. Lenengo bostac dira necesarioak, edo recibitu bear diradenac obraz, edo deseoz, eta oek bague ecin salva diteque guizona, utcitcen baditu menosprezios: beste biac dirade vorondatezcoac. Los sacramentos de la santa madre Iglesia son siete: los cinco primeros son de necesidad, de hecho ó de voluntad, sin los cuales no se puede salvar el hombre si los deja por menosprecio: los otros dos son de voluntad* (47-48. or.).